



Iturria: *Devoten breviarioa*, Pierre Argaiñaratz (faksimilea). Hordago, 1978.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArgainaratzDeboten.htm>

DEBOTEN BREBIARIOA

Pierre Argaiñaratz

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

DEBOTEN BREBIARIOA

Le bréviaire des dévots

Par

P. d'Argaiñaratz

Vicaire de Ciboure et prédicateur

Nouvelle édition conforme

à la première de 1665

Chalon-sur-Saone

Imprimerie Française & Orientale E. Bertrand

5, rue des Tonneliers, 5

M. CM. X.



ANDRE DENA MARIARI DEDIKAZIONEA

Trinitate sailduaren
Korteko erregiña,
Ama Ienkoa beraren
Hutarakotz egiña,

Eua orde zaituguna
Halaber guk gurea,
Libratu darokuzuna
Zerurako bidea,

Zuri iarrekitezekotzat
Ondotik gidaria,
Bethi kontenplatzekotzat
Dugu zure bizia.

Brebiariotxo hunen
Suiet hartu tudanak
Zazpi prinzesa sailduen
Bizitzeko fazoinak.

Ikusten tut Eskolatzat
Begietan zurea
Zutela huntarakotzat
Saindutzeko berea.

Zordun zaio zeruari
Hekien sailnutuzuna,
Obratxo hau beraz nori
Zuri baizen, Birjiña.

Gertha bedi beraz arren
Hala nola zuretzat,
Trinitate sailduaren
Bethi laudatzekotzat.

Duen indar berarekien
Debotak nork berea
Daramaten: nik hekien
Sainduke bizitzea.

Amen.

APROBAZIONEA

Irakurri dut ene Iaun Ipizpikuaren manuz d'Argaiñaratz aphez eta Ziburuko jaun bikarioak egin duen Liburua Deboten brebiarioa deitzen dena, zeñetan ezpaitut deusik kausitzen fedearen kontrako denik, aitzitikan da eskola bat bezala, bat bederak bere salbamendua egin dezantzat ordena aberats eta berezi batez guzia egiña eta hala iuiatzen dut merezi duela lehen bai lehen inprima dadin, eta egia hunen lekhukotasunean sinatu dut presenteko aprobazionea. Baionan abendoaren hirurena 1664.

P. Ste. Marie, sekr.

APROBAZIONEA

Plazer eta atenzione handirekin Baionako ene Iaun Ipizpikuaren manuz irakurridut eta examinatu presenteko Liburu hau Deboten brebiarioa deithu d'Argaiñaratz aphez Ziburuko bikarioak molde berezi eta guziz eder batean egiña, zeñetan deusere aurkhitu ezpaitut fede katolikoaren edo girstiñozko berthutearen kontrakorik, lekhat guzia iuiatu dut konforme dela siñeste egiaskoarekin, eta Ienkoaren Ispirituaz betheak direnen probetxu handitan baizen; huntarakotz estimatzen dut merezi duela lehen bai lehen inprima dadin, eta bat bederaren kontentamendu eta abanzanendu handitan argitarat ilkhi dadiñ. Egia huntaz fede gehiago egitekotz sinatzen tut letra hauk. Donibanen abendoaren lauean 1664.

P D'Hirigoity,
Apheza eta Teologian Doktorak



PERMISIONEA

Ikhusirik deboten brebiarioaren faboretan eman diren bi atestazoneak permetitzen diogu Bernat du Bosc gure Inprimatzaileari inprima dezan erran den Liburua. Egiña Baionan, gure Aphizpikutrasuneko palazioan, abendoaren bortzean 1664.

IOANNES, Baionako Aphezpikua

DEBOTEI

Debotak, zuena bezala, brebiariotxo hau, zuei heldu zaitzue, debotak zareten maneran deboten izenarekin, baiñan debotago oraiño zuen debot izatea errenda diezazuentzat, Zazpi prinza sainduen bizitze debotak eskolatzat aitzinean presentatzen darozkitzuela zeinak bere errethaultan ikhusiko tutzuen bezala, hala dukezue.

Matutiñetan Sant Elisabeth, zeña gauerdia guzietan jaikitzen baitzen errethaula batean bezala Ifernuko gau ilhun eta hango damnatuen pene meditatzerat;

Priman Santa Radegonda, zeina goiz guziez eguna deskubritzen hasten zenean berehala, baizagoen meditatzen zeruko sekulako eguna harne errethaulan ikhusiko duzuen bezala;

Terzian Santa Klotilda, zeña gogoaren bortxaz bestitzen baitzen erregiña izan arren soin berregiñ eta aberatsez: huntarakotz kontenplaten zuela errethaula batean Maria Egipziana bere ixarloe besitua desertuan bizi izan zen bezala berrogoi eta zazpi urthez, haren errethaulan ageri den maneran;

Sextan, Santa Kristina, zeña bestitu zen bezain sarri, munduko obra guzietarik apartatua espiritualei lotzen baitzitzaien, huntarakotz bazadukan bere begien aitzinean errethaula bat, Maria Madalenarena eta Martarena, haren errethaulan ikhusiko duzuen bezala;

Nonan, Sant Eleonor, zeinak bere othurunzen hartzean baitzadukan bere aitzinean errethaula bat Iesu Khristo gure salbatzailearena, zeinari burreu batek presentatzen ziotzala khelder eta miñagrea, haren errethaula ikhusiko duzuen maneran;

Besperetan, Sant Helena, zeina bere hill orenaren kontenplaten baitzen bethi okupatua, huntarakotz begien aitzinean zadukala

errethaula bat zeñetan aingeru batek erhiaz bezala erakusten baitzuen erroloia baten markan bere bizia, hiltzerako besperan zuela, haren errethaulan ageri den bezala;

Konpletetan Lorrenako Margarita Alenzongo dukeza zeinak bere burua, bizi zelarrik, hiltzat baitzadukan, huntarakotz bere begien aitzinean zadukala errethaula bat zeinetan pintarazi baitzuen bere burua hilla izan baliz bezala gatabute batean, ikhusiko duzuen bezala haren errethaulan.

Debotak, imita zazue saindu handi hauk bere bizitze sainduetan, eta orduan zaratezkete izenez eta obraz debotak.



MATUTINAK

Sant Elizabeth, debotak,
Zuei minzo zaitzue:
Harenekin orobatak,
Obrak eginzatzue.

Iaiki beraz gau erditan,
Eta haren arabaz,
Orrhoit iaikitze alditan,
Ifernuan den gabaz.

Gau erdiko muga noiz zen,
Prest zegoen ernea
Darnatuenzat han zer zen,
Zen haren beillatzea.

Gau ilhuna, borthitz penak.
Ez aphurbatekoak:
Huna hekin dolamenak,
Bainan sekulakoak.

Eziñ ikhus ezin goza:
Iaunaren presentiaz,
Huna arraataren boza,
Ez sekulan loriaz.

Lastima hauk zadutzala
Meditazionean:
Errethaula bat bezala
Begien aitzinean:

Oihuz dio, o Ienkoa,
Handik guarda nazazu:
Plazer duzun ondikoa,
Othoi hemen indazu.

O Debotak huntarakotz,
Atzar espirituak:
Hauk dire hauk arimakotz,
Pensamendu sainduak.

Beilla beraz gau parte bat,
Sekulaz orrhoitzeko;
Hau dukezue bide bat,
Sainduki bizitzeko.

Egin bethi obra onak,
Ezen berze deusikan,
Ezin dezake gizonak,
Eraman mundutikan.

* * *

Egunekien badoaz,
Bethikotz atsegiñak:
Baiñan norenganik doaz,
Hetazko bihotz miñak.

Deusik hagoan eztago,
Non ezten iragaitzaz:
Pena ordean badago,
Bekhatuaren gaitzaz.

Zeiñ garratz den bitartean,
Orai ezta Seiñale:
Ifernua iar artean,
A zoteen emaille.

Egia da mundu huntan,
Bakhotxaren arimak,
Sentitzake bere baithan,
Dolorezko lastimak.



Sentizake Ifernua,
Munduan delarikan:
Hartu ondoan dolua,
Badu bekhaturikan.

Izan arren esparantza,
Iauna baithan hartua
Ikhara zein duen latza,
Bihotzean Sarthua.

Nola daiteke berzela,
Eztadin bethi pena:
Eta ikaran eztela,
Ienkoaz gabe dena.

Nola haiñaren bihotza,
Daite pausu osoan:
Nola haiñaren gorputza,
Penetarik kanpoan.

Sentimenik ezduenak,
Ienkoaren galzeaz.
Has betza has dolamenak,
Bere zortha tristeaz.

Etsi beza bizi dela,
Senti mandataria:
Ifernuan daitekela,
Haren obren Saria.

* * *

O Iauna othoi indazu,
Neure hutses damua,
Badakusat ezpadazu,
Nola naizen galdua.

Pena borthitz zer nahi den,
Ordenatzen duzunaz,
Nadin zeha noiz nahi den,
Gabaz eta egunaz.

Bethoz arren huntarakotz,
Elementa guziak:
Bethoz ene punitzekotz,
Kreatura guziak.

Egunaren ikhustean
Zenbait konsolamendu,
Bat bederak sufritzean,
Mundu huntan harzen du.

Gau illhunaz orrhoitzean,
Gau ikharagarriaz,
Sesitzen naiz bihotzean,
Sekulako garriaz.

Gau illhuna hire baithan,
Eztuk konsolaterik:
Eztuk hire tormentetan,
Has ez khabatzerik

Bethi dituk hire penak
Hastean bezaiñ fresko:
Ep-herikan eztutenak,
Gaistoen punitzeko.

Etziaitek damnatua,
Hire Baithan den suan,
Ikhusirik fiñatua,
Kausi bere pausuan.

Eztuk hor muga legea,
Orenen kondatzeko,
Baiñan eternitatea,
Bethi konteplatzeko.



Debotak latzgarriago,
Zer daiteke berria,
Damnatua suan dago,
Sekulako iarria.

* * *

Iaunak bere borondatez,
Nahi gaitu zerura:
Eztu nahi bere partez,
Doan bat ifernura.

Bethi maite dutenentzat
Badu parabisua,
Egiten eztutenentzat,
Ordean ifernua,

Nahi zaitugu maitatu,
Iauna zarenagatik.
Ez Parabisu, Ifernu;
Eta bertze Deus gatik.

Badarotzugu bihotza,
Errezibi dezazu:
Eta baldin bada hotza,
Arren bero dezazu.

Zer behar da bihotzean,
Iauna zutaz berzerik:
Sekulakotz aitzinean,
Bertze maitatzekorik.

Handi ditu bizi denak,
Abantaillak munduan:
Iauna maita dezakenak,
Nahi duen orduan.

Bihotzean bozik dago,
Esparantza handiaz:
Iauna maitatzean dago,
Bestitzea graziaz.

Iduri zaio iadanik,
Oraino hemen dela,
Zeruetara iganik,
Lorian dagoela.

Ifernuan dena ezta,
Maitatzeko bidean:
Ungi uzterikan ezta,
Damnatuen artean.

Esparanza gabe dire,
Hemen gaizki biziak:
Etsituak bizi dire,
Sekulako loriaz.

* * *

Harritzen tu ifernuak,
Hillak eta biziak,
Nahiz direla iustuak,
Beldur dire guziak.

Baiñan harrigarriago,
Dakusat bekhatua:
Hura da kausa baitago,
Erretzen damnatua:

Bekhatuan baithan dire,
Malezia guziak:
Hartan edireten dire,
Doloreen haziak.



Ifernuan damnatua,
Penaz orroaz dago.
Egiñ duen bekhatua,
Hagitz du kruelago:

Hark dadutza penatuak,
Hartan diren arimak:
Hark daroste berretuak,
Bihotzeko harmiñak.

Bere Iaun fin gabvekoa,
Ofensatu dutenez:
Fiñ gabeko ondikoa,
Senti dute ordaiñez.

Bere faltaz galdu dute,
Hekintzat zen loria:
Huntaz beregainki dute,
Bere pena guzia.

Bazioazken zerura,
Bere eskuan zuten:
Ordean bere gustura,
Munduan nahi zuten.

O orai balire hemen,
Handikan itzuliak:
Bertze bidez eramanen,
Lituzkete biziak.

Berek billhatu dutena,
Dute poseditua:
Ezin utz dezaketena,
Bethikotz ifernua.

* * *

Debotak zer diozue,
Orai zeбен gogoan,
Gau beltza ahal duzue,
Bihotz eta ahoan.

Pensamendu tutzuenak,
Tutzuen bethi hartaz,
Harako etzaretanak,
Zaretan bide hortaz.

Heda hara beharriak,
Plaiñuen aditzeko:
Zeiñ diren harzigarriak,
Gero meditatzeko.

Zabiltzate han barrena,
Imajinazionez,
Eta orrhoit hango pena,
Fiñikan eztutenez.

Iklus hango damnatuak,
Deseparaturikan:
Egiñ duten bekhatuak,
Emanarazirikan.

Iklus Elisabeth baithan,
Nola saiñdu handiak,
Zaramatzan molde huntan,
Gau bellatze guziak.

Hauk zituen matutiñak,
Gau erdi iaikitzetan:
Suspirazko auhen miñak,
Hango orrhoitzapeneten,

Orrhoit orrhoit fazoiñ huntan,
Han duten lazeriaz:
Eta egon ikharetan,
Atzar aldi guziaz,



Kita bekhatua beraz,
Ez ifernuratzeko:
Baiñan gero bide beraz,
Aborri sekulako.

Eztuguntzat perillikan,
Bethiko gau illhunaz:
Ustatuak aitzitikan,
Sekulako egunaz.

LEHENBIZIKO REFLEXIONEA MATUTINEN GAIÑEAN

Debotak atzar gaitezen,
Ordua da ordua:
Has gaitezen kontenplätzen:
Damnatuen lekhua.

Lekhu triste bethi audun,
Nigarrezko lakua:
Lekhu kruek orroa dun,
Luziferen lekhua.

Egoitza sekularena:
Bekhatuak egiña:
Han sufritzen den pena,
Ezdaite nihoiz fiña.

Zer hari zarete beraz,
Debotak mundu huntan:
Orrhoit orrhoit ifernuaz
zuen salbamendutan.

Nahi luke damnatuak,
Baliz zuen lekhuak:
Gau egunak penatuak,
Laramazke munduan.

Zer nahi den marthirio,
Hemen sekulakotzat,
Sekulako bozkario,
Litzaieko beretzat.

Transitzen zen bihotzean,
Zuzia penatua:
Ifernuaz orrhoitzean,
Elizabeth saindua.

Kontenplätzen gau erdiak,
Lastimaz betherikan,
Zaramatzen atzerriak,
Hartaz orrhoiturikan.

Orrhoit zaiteste Debotak,
Nola ifernukoak,
Damnatuentzat tormentak,
Diren sekulakoak.

Exenplu har ezazue,
Hekiñ zorthe tristean:
Iauna obedi zazue,
Bere borondatean.

OTHOITZA BIRJINARI MATUTINEN ONDOAN

Parabisuko bidea libratu darokuzun miserikordiaren Ama, egidazu fabore parabisua den ene desira guzien bathiereko obieta, eta Ifernua ene beldurtasun eta ikharen suieta, bataren sekulako atsegiñ eta dohatsutasunak bethiere bihotzean barrena darabiltzadala, narraion hetarako Nezesario zaitan bideari, berzearen penetara error-tzeko perilletarik apartatua eta nola zure ganik hastandua den biho-tzak, eziñ baituke illhunbean baizen bere respirazionea, erabill dieza-dazu zeurekien bethiere neure bihotza zure presenziaren argia gertha dakidantzat, gidatzat; denboratik eternitatera ioateko.



PRIMA

Erran tutzue, Debotak,
Matutiñak gau erdiz:
Primara Sant-Radegondak,
Deitzen zaituste aldiz.

Hark bezala duzuenzat,
Sekulako eguna:
Bethiko orrhoitzapentzat
Bihotzean emana.

Egun eder xuri ura,
Loriaz betherikan:
Zitzaion pensamendura,
Heldu goiz guzietan,

Hartaz pensatzen zuela,
Bere othoitz lekhuana,
Zeruan zitzaion zela,
Zelarikan munduan.

Osoki admirtua,
Zarasan bere baithan:
O egoitza dohatsua bethi
Baitaz argitan.

Ene Iauna egia da
Aithortzeko duguna:
Zure obra egiña da,
Dakusagun eguna.

Baiñan zer kontetamendu,
Dugegu huzenganik,
Ezta haiñ fite agertu,
Non eztoan guganik.

Ez eiki eguna hitan,
Eztuk satisfazerik:
Nihork eztik bere baithan,
Hitaz gozo osorik.

Illhuntzen ezten eguna
Dakusat zeruetan,
Ni konsoaltzen nauena
Bizi triste hunetan.

Sekulakotzat zare zu,
Egun laudatzekoa:
Zuk erakuts dezakezu,
Bekhoz Bekho Ienkoa.

* * *

Behar huntako egunaz
Dakizue, Debotak,
Bethi hiltzeko orenaz,
Dituela arrutak.

Erakuisten darokula,
Thonbarako bidea,
Emana zaikun bezala
Haratzeko legea.

Egiten tugun urratsak,
Ttipi eta handiak,
Nahiz ungi, nahiz hutsak,
Hara doaz guziak.

Zeiñ, momentu egunaren
Ezin daite señale,
Daiten gure biziaren,
Arrastaren emaille.



Egia da Iguzkia
Ez da nihoiz zahartzen,
Guztioi egun berria
Darokula ekhartzen.

Hanbatenez da indartsu
Bere naturalezan,
Zer ere baita kreatu,
Uztekotz ez deusetan.

Erakusten darokula
Begien aitziñean,
Hiltzen hastera doala
Bat bedera sortzean.

Bera doakun bezala
Geure begietarik,
Mundutikan goazela,
Bata bertzeaganik.

Bai eiki hi aiz eguna,
Nahiz den bizitzea.
Orobat drokukena,
Nola heriotzea.

Debotak, altxa detzagun
Gora geure begiak,
Hango egunean tugun
Sekulako biziak.

* * *

Egun oroz dakuskigun
Nahiz obiet berriak,
Laburki zaizkigu iguiñ,
Unhaturik begiak.

Hala dire izatetan
Hala dire kausitzen
Eztutela bere baithan,
Disgusturikan baizen.

Bista bethi nahasia
Ikhusten dituenez,
Bihotza eziñ sasia
Goza dezaken deusez.

Zeruetan dukegunaz
Radegonda saiñdua,
Zinduen bethi egunaz
Zure pensamendua.

Hartan zintuen ikhusten
Obiet ikhusgarria,
Bista unha eziñ zaiten,
Gauza miragarriak.

Bihotza eziñ zinduken,
Hemen sosegatua,
Han ikhusten baitzinduen,
Zure pausu lekhua,

Haren billhatzeko penak,
Zutan ikhusi tugu,
Egun oroz ziñtuenak,
Ziren zure sosegu,

Egun haren billhatzean,
Amudiozko sua,
Eta bere bihotzean,
Du, Debotak, pausua.

Illhunbean ikhusten du,
Mundu huntan bizia
Handujab ilkhi nahiz du,
Bere pena guzia.



Billhatzagun billhatzagun.
Sekulako argiak,
Mandutik aldaratzagua,
Huntarakotz begiak.

* * *

Izan arren illhunbean
Lekhu beher hunetan,
Egia da bitartean,
Bagaitezke argitan.

Badukegu zerutikan,
Arimako argia,
Bere sekulakotikan,
Iaunak iratxakia.

Iaunak faboraturikan
Nor grazian baitago,
Mundu huntan delarikan
Haiñan argitan dago.

Ezta illhuntasunikan
Argi hau den lekhuian,
Iauna bera aitzitikan,
Han daiteke orduan.

O Debotak idukagun,
Argi han geure baithan,
Eta kita ezdezagun,
Ordena niholatan.

Argi huntaz dituzkegu,
Arimak bozkarioz,
Ezin trista dakizkegu,
Ez penaz ez herioz,

Zeruaren markak ditu,
Argitan den arimak,
Iaunak haiñ handiak ditu,
Hartaz tuen estimak.

Argitan den arimaren,
Lekhu konsakratua
Egoitza da Ienkoaren,
Nola baita zerua.

Argi huntaz zerukoa,
Behar dugu argia,
Han ikhustekotz Ienkoa
Hau dugu gidaria.

Huntaz ikhusi behar da,
Eta gero gozatu,
Huntarakotzat behar da,
Bisturik konserbatu.

* * *

Dadukanak illhunbean
Argi faltaz arima,
O zeñ latza bihotzean,
Behar duen lastima.

Horrat hunat itsuturik
Badu penarik aski,
Bethi errebelaturik
Non dabillan estaki.

Sekulako argitikan
Bizi da hastandua:
Ifernura mundutikan,
Arruta du hartua.



Penak ditu bihotzean,
Eztupausu garabik,
Bizitik heriotzean,
Illhunbean emanik.

Ikhusten du presentean,
Bien diferenzia,
Argi illhunen artean,
Ea zein den handia.

Kalte suerte guziak,
Dakuski illhunbean,
Ariman alegranziak
Argitan zeunean.

Aithor beza den bezala,
Argitik illhunbera:
Ioan nahi Izan duela
Bere borondatera.

O Iauna eman gaitzatu,
Zerurako bidean,
Eta erabill gaitzatu
Bethi zure aldean.

Gathozentzat zuregana,
Zaitugun kausitua,
Hedazazu guregana,
Zure argi saildua.

Hemendikan aitzinera,
Seguratzten zaitugu,
Ezgoazke illhunbera,
Argi hura badugu.

* * *

Illhunbetik ilkhitzean,
Argitara arima,
Zein boz daiten haratzean,
Nork dezake estima.

Zenetikan berze bat da,
Bozkariotan dago,
Itsu zena argitu da:
Hilla bisturik dago.

Arimak gozatu arren,
Fabre hauk munduan,
Oraino bere beharren,
Duena du zeruan.

Argia doan bezala
Ephe gutiz bistatik,
Beldur gara berehala,
Doakun arimatik.

Bethi bedur izatea,
Ez deusik seguranan,
Nor nahi dago tristea,
Delarik esparanan.

Eztoana bistatikan,
Da zeruetan dena,
Gure arimak argitan,
Bethi dadutzakena.

Argi hura ezta galtzen,
Kausitu den ondoan,
Ez bistatik aldaratzen,
Behatzekotz non doan.

Beha saildu Radegonda
Zagokan argi hari,
Ez gau egunaz arroda
Egiten duenari.



Ene Iauna ziotszala
Zeruetan duzunaz
Noiz uzteeko dut nauzula,
Gozatuko egunaz.

Argi huntan Radegonda
Zuen bethi gogoa,
Hala duguntzat, Debotak,
Othoitz-agun Ienkoa.

BIGARREN REFLEXIONEA PRIMAREN GAINEAN

Debotak orhoit gaitezen
Sekulako egunaz,
Ezta disgusturik baizen,
Orai dakusagunaz.

Zeruko egun argia,
Ezta suiet gabera,
Zeren hango iguzkia,
Bata ienkoa bera.

O hango bozkarioa,
Han direnen artean,
Dakusatela ienkoa,
Bere maiestatean.

Bistan kontent bethiere,
Dadutzala argiak,
Hartan sasiatzen dire,
Borondate guziak.

Ezta hor eskasik eztra,
Deusez ene Ienkoa,
Zutan edireiten baita,
Konplimendu osoa.

Noiz izanen othe gara,
Iauna plazer duzula,
Iganik Zeruetara
Ikhusten zaitugula,

Noiz othe zure kortean,
Tuzkiegu bethikoak,
Aiñkeruekin batean,
Kanta laudorioak.

O Debotak mundu huntan
Badakigu zer garen
Bethiere disgututan,
Baizen, nola ez garen.

Billhazagun bethi beraz,
Bihotzaren pausua,
Ea huntarakotz beraz,
Loriazko lekhua.

Gaitezentzat hara eta,
Iaunarne presentzian,
Bekhoz bekho ikhus eta,
Bethi haren lorian.

OTHOITZA BIRJINARI PRIMAREN GAIÑEAN

Iraungi ezdaiteken argiaren Ama: sekulako egunaren alba xuria; munduari graziaren iguzkia ekharri ondoan, natura bera sekulan iraunen duen argitasun batez argitan eman duzuna, othoitzez nagotzu humilki, heda detzan, haren klaritateak bere arraiok ene arimara, herioari begiak zarratzera heldu natzaionean ezdiotzodan zarra Non eztiotzodan zabaltzen sekulako esparanza dudan bizitzeari Eta nola munduko klaritateak ezpaitaroku irakasten sepulturako bidea baizen, klara diezadazu bethiere neure espiritua fedearen argiaz, esparanzan bizi nadintzat ikhusiko dudala sekulako argiaren kreatzaillea bera.



TERZIA

Debotak san-Radegonda
 Priman enzun duzue:
 Terzian saindu Klodilda,
 Asisti dezazue;

Ofizio saindu haren,
 Meditazionetan,
 Bethi okupatua zen,
 Bestitze guzietan.

Penatua bihotzean,
 Soiñ superbioz zeren,
 Borxazko lege batean,
 Bestitu behar zuen.

Nahi ezpazuen ere,
 Nola kondizinez,
 Baitzen Erregiñen pare,
 Borxatzen zen dolorez.

Maria Egipiziana,
 Begien aitzinean,
 Ordean zuen emana,
 Errethaula batean.

Etzuen Urre zillharrez
 Bere soin berregina,
 Bainan bai iratxarloeaz,
 Desertuan egina.

Moda laudatzeko hari
 Begira zagokala,
 Mintzo zitzaion Iaunari,
 Suspiraz ziotsala.

Eman darozut bihotza,
 Ene Iauna guzia:
 Hala darotzut gorputza,
 Desiraz billuzia.

Saindu billuz hunen gisa,
 Gogoz billuzirikan,
 Ezagula errefusa,
 Duen soiñagitan.

Buruko Khoroarenzat,
 Ene bihotzekoa,
 Daite bethierekotzat,
 Zure aranzekoa.

* * *

Gutiago hanbatenez,
 Gorputzaz kasu zuen
 Gehiago zenbatenez,
 Kontenplätzen baitzuen.

Lurra bere ethorkian,
 Sorthua bekhatutan
 Naturalki miserian,
 Zakusan zorthen huntan.

Zer gorputzaren behar da
 Bestitzekoa beraz?
 Berak, dio, lurretik da,
 Lur beretikan beraz.

Aparta beraz niganik,
 Banitate guziak,
 Halaber ni zuen ganik,
 Dio Saindu handiak.



Berthuteaz bestitua
 Iauna dakusazuna,
 Hura duzu hautatua,
 Eta maite duzuna.

Ala aberatski besti,
 Baita zure gustura,
 Zogoz billuzia bethi,
 Dabillana ardura.

Saindu Egipzianaren,
 Huntarakotz begiak,
 Jintuen Errethaularen,
 Gaiñera egotziak.

Elas zer ziñoela,
 Ene Iauna ni baithan,
 Saindu hau penaz hunela,
 Eta ni plazeretan.

Hanbat Urthez biluzia,
 Desertuan barrena,
 Eta nik bizi guzia,
 Penarik eztuena.

Iauna othoitez nagotzu,
 Hura zen Desertua,
 Arren, den egin dezazu,
 Ene othoiz lekhua.

* * *

Bere baithan Desertuak,
 Eztu handidasunik,
 Halaber eztu munduak,
 Nihoiz humiltasunik.

Desertuan ikhasten da,
 Zer daiten bat bedera,
 Eta nola, orrhoitzen da,
 Behar den lurrera.

Munduak berzela dio,
 Irakasten eskola,
 Denetik erraten dio,
 Goragokoa dela.

Harrarasten diotzala,
 Fite bere ordenak,
 Handidasunik direla,
 Zuzenki dagotzanak.

Nihor ere ez bezala,
 Gero bestitu eta,
 Zeruko baliz bezala,
 Pretenditzen du besta.

Agur guziak beretzat,
 Halaber behatzeak,
 Estimak ez berzerentzat,
 Hain guti laudatzeak.

Zuen sinpletasunean,
 Debotak bazaudete,
 Zeruaren aitzinean,
 Handiago zarete.

Zuetaz dirate bestak,
 Bethi nago kortean,
 Zuen laudorioz iustak
 Aiñgeruen artean.

Enozue gorputzari,
 Simpleki bere soiñua:
 Lekhurikan ez modari,
 Aldatzeko fazoiña.



Zareten Esther bezala,
 Iaunaren aitzinean,
 Handidasunik ezteła,
 Soin dakharzuenean.

* * *

Zer othe daite Naturan
 Haren kontragorikan
 Sarri denaz sepulturan,
 Baizen, ez kasurikan?

Gorputzaren artha batez,
 Hanbat pena Munduan,
 Daitelarik Ustekabez,
 Xixarien lekhuā.

Hura Ienkotzat bezala,
 Bat bederak adora,
 Desira duen bezala
 Ahal baleza, dora.

Has detzagun has auhenak
 Suiet huntaz Debotak,
 Bihotzetik Dolamenak
 Gero nigar zorrotak.

Gorputza besti dadilla,
 Aberatski guzia,
 Arima ibill dadilla,
 Ordean billuzia.

Daiten aberatskiena,
 Izan arren soinean,
 Alabaiñan lehen zena,
 Da bere izatean.

Ezin Naturan daiteke
 Kausi sekreturikan,
 Non gorputza baitaiteke,
 Lur denaz bertzerikan,

Harren obratuak dire,
 Haren bestigarriak;
 Har berak izanen dire,
 Haren irestgarriak.

Zerbitzatu dutenean,
 Bizirik dagoēno,
 Ianen dute hill denean,
 Konsumi daitekeño.

Dugun dugun berehala,
 Saindu Egipziana,
 Desertuan zen bezala
 Begietan emana.

* * *

Bethi kontenplaztekoa,
 Zara saiñdu handia,
 Gure eskolaztekoa,
 Duzu bizi guzia.

Hanbat urthez egoitzatzat
 Zinduen Desertua,
 Ohea pausuarentzat,
 Aranzez moldatua.

Gorputzean doloreak,
 Ariman sentimenak,
 Hauk ziren zure loreak,
 Hautatu zintuenak.



Dela bero, dela hotz zen.
Bethi billuzgorria,
Huna Desertuan zer zen,
Zure bizi guzia.

Han egon zaren Urtheak
Berogoi eta zazpi,
Hetan belhar xoil iateak,
Etzizaizkitzun aski.

Debotak kontenpla beraz
Desertuko Maria,
Alda huntarakotz beraz,
Zeiñek bera bizia.

Ikhasagun haren baithan
Nola pena, dorpheak,
Behar diren Mundu huntan,
Gorputzaren doteak.

Ezdagoka gorputzari,
Dugun hartaz artharik,
Baiñan xoilki arimari,
Alde guzietarik.

Konsiderazagun arren,
San Klodilda penetan,
Saiñdu Egipzianaren,
Imitazionetan.

Begiran egon ondoan,
Haren bizitzeari,
Ikhusagun nola doan,
Minzatzera Iaunari.

* * *

O Iauna zertako othe,
Gorturik fortunez,
Mundu hutan nauzu bethe,
Hanbat handidasunez.

Fortunaren gorenean,
Eman nauzu tronuan,
Zu zerori gurutzean,
Enetzat zen lekhuan.

Zarelarik loriaren,
Egiatzko Ienkoa,
Eta ni miseriaren
Esenplutzat iaioa.

Erregezko zure markak
Kontenplätzen tudala,
Ikhusten tut diferentak,
Enetarik direla.

Khoroa duzu buruan,
Baiñan aranzezkoa:
Zeproa zeure eskuan,
Halaber seskazkoa.

Ganbiatu behar tugu,
Batak berzearenak,
Nik zureak baititugu,
Zuk eneak direnak.

Ohore, Zepro, Khoroez,
Burutik oñeraino,
Billuzten naiz ni neureez,
Borondatez oraiño.

Biziko naiz ene Iauna,
Desertuan bezala,
Maria Egipziana,
Imitatzten dudala.



Haren bizi penatua,
Desertuan zuena,
Dadukadala sarthua,
Bihotzean berana.

Gaiten partale Debotak,
Saindu Klotildarekin,
Billuz detzagun gorputzak,
Beraz bihotzarekin.

HIRURGAREN REFLEXIONEA TERZIAREN GAIÑEAN

O itsumendu borthitza,
Bat bederak duena,
Berregitzeaz gorputza,
Munduan hanbat pena.

Dakigula hobirako,
Prestatuak garela,
Ephe dena bitarteko,
Gau biharkoa dela.

Bat bedera bitartean,
Den osoki emana,
Nondik daiteken soiñean,
Berzatarik lehena.

O Debotak huna non den
Gauza nigarrezkoa.
Eta zein kaltiarro den,
Eziñ erranezkoa.

Behar ginduke larikan,
Bizi aphur hunetan,
Ibilli bestiturikan,
Dolu gisa batetan.

Probetxu eztukegun
Soiñez dugun ardurez,
Debotak ukha dezagun,
Eta besti berthutez.

Hautaz, hautaz behar gara
Bestitu arimetan:
Sinpleki hemendik hara,
Ibil geure soiñetan.

Berthuteaz egiñikan,
Baizen kausitzen denik,
Ezta bestimendarikan,
Iraupeneko denik.

Herioaren arratsa,
Ethorri bezaiñ sarri
Khendu da soiñ aberatsa,
Gorputza billuzgorri.

Bestigaiten arren beraz,
Billuz ezgaitezkenak,
Obra onen bestimendaz,
Sekulako daitenaz.

OTHOITZA BIRJINARI, TERZIAREN GAIÑEAN

Birjina bethi adoratzeko zarena: grazien Erregina: Berthute guzietz bethi bestitua Izan zarena: Ienkoaren aitzinean beregainki agradatua Izan zarena: zure bitartekotasunaz fabora nazazu Neure bethiereko bestimendua dudan berthutezkoa, eta Neure supezbiozko bestimendaz billuzi naizen ondoan, eman diozodan neure arimari lehenbizi Izan zuen Inozenziaren arropa, arima ezin doakenaz geroz Zerura, Inozenziaren arroparekin baizen.



SEXTA

Saindu Kristina, Debotak
Doa sexta hastera,
Ienkoari bere obrak,
Guziak ofritzera.

Bestitu zen bezaiñ sarri,
Ofizio huntarik,
Ez alxatu ez zen iarri,
Konplitu gabatarik.

Ofizio saindu huntan,
Bere meditatzia,
Zuen bethi bere baithan,
Mundua trufatzea.

Iauna baithan zadutzala
Bere pensamenduak,
Parterikan etzuela,
Hetarikan Munduak.

Marta eta Mariaren,
Eragiñik zuena,
Errethaula bat bazuen,
Kontenplätzen zuena.

Diferentak zakuszala,
Hekien trabailluak:
Martak Munduko bezala,
Mariak Zerukoak.

Okupatua zen Marta
Etxearen gauzetan:
Mariak zadukan artha,
Iaunaren zirenetan.

Beregainki hargatikan,
Obrak Mariarenak,
Laudatuak dire izan,
Eta ez Martarenak.

Saiñdu Kristina da iarzen,
Kontenplätzen Maria,
Eta gero imitatzen,
Haren bizi guzia.

Iauna othoitzen duela,
Debotki huntarakotz
Grazia arren demola,
Haren imitatzekotz.

* * *

Huna nola bere baitan,
Den Kristina mintzatzen,
Zertako naiz Mundu huntan,
Non eznaizen sabatzen.

Badakusat banoala,
Hobira lasterketan,
Herioa dabilta,
Inguruz aldaketan.

Zertako dut hanbat pena,
Utzi behar tudanez,
Sufritu behar nukena,
Sekulako direnez?

Zer ematen othe darot,
Inperia dudanak:
Pena gehiago darot,
Haren handitasunak.

Zer probetxu nuke banu
Neronentzat Mundua,
Ordaiñetan galzeñ banu,
Sekulako Zerua.



O beraz handidasunak
 Hastan Iauna niganik,
 Munduak darozkidanak,
 Ni ez nadin zuganik.

Salba nadiñzat nahi dut,
 Osoki travaillatu,
 Berzerikan nahi eztut,
 Ez egin ez pensatu.

Sekulako duke dana,
 Dadukat bihotzean,
 Kita ezdezakedana,
 Neure Heriotzean.

Gora dena izatean,
 Munduaren direnez,
 Gutienikan Ustean,
 Gabetzen da guk iez.

Frogatzen du berehala,
 Hekien ondorea,
 Izatez duten bezala,
 Bethiko dolorea.

* * *

Travailuak alfer dire,
 Debotak, mundu huntan,
 Baldiñ eta ezpadire,
 Gure Salbamendutan.

Nor ere penatzen baita,
 Berte xedez munduan,
 Pena gabe berdin ezta,
 Ungi uste orduan.

Bera pena geiekin,
 Obra akhabatzen,
 Haiñ da pausu gutirekin,
 Nola baitzen hastean.

Duen ontasuna franko,
 Bat bederak munduan,
 Eziñ duke, berdiñ asko,
 Iarzeko soseguan.

Eman arren bitartean,
 Soseguan gorputza,
 Bethi zerbait eskasean,
 Kausitzen du bihotza.

Besarka beza denbora,
 Gusten konplitzeko,
 Faltatuko zaio bera,
 Hetaz Urrikitzeko.

Ezta nihor bitartean,
 Doanean hobira,
 Non ezten bere Ustean,
 Ioanen dela Zerura.

Alabaiñan obrak gabe,
 Nihor ezta Salbatzen:
 Baiñan haiña duda gabe,
 Sekulako damnatzen.

Munduari datxakonak,
 Munduan duen Saria:
 Zeruz orroitzen denak,
 Zeruetara loria.



Debotak Imitatzagun,
Madalena Saindua:
Hark bezala obrazagun,
Dugun salbamendua.

* * *

Zer travailla Madalenak,
Bazuen aizparekin,
Baiñan ziren haren penak,
Kasi munduarekin.

Diferenta travaillua,
Hargatik hartu zuen,
Sekulako Sosegua,
Nondik ahal zuduen.

Khenzen du bere gogoa,
Osoki lurretikan,
Billhatzen bere Ienkoa,
Iautsia Zerutikan.

Eztu haiñ fite kausitzen,
Non ezten berehala,
Gozo guziez sesitzen,
Dohatsu bat bezala.

Ematen du Bihotzean
Tresor guardatzekoa,
Gauza guzien gaiñean,
Ienka maitatzekoa.

Izan arren inkieta,
Aizpa harengatikan,
Ezdezake Iauna kita,
Bere bihotzetikan.

Travaillua, egia da,
Etxean zaramana,
Inozenta izatu da,
Halaber Marterena.

Baiña zuen lurrarekin
Aphur bat nahasia,
Eta aizparenarekin,
Diferentki hasia.

Etzuen lurrak lekhurik,
Madalenaren baithan,
Iauna baitzuen harturik,
Ostatuz bere baithan.

Bihotzaren barrenean,
Daduka emanikan,
Eztu hura duenean,
Duesen desirarikan.

* * *

Ez da berri arrotza,
Madalena saindua,
Zeren osoki bihotza,
Duzun sasiatua.

Dagoenak Iaunarekin,
Zer eskas ahal duke?
Gauza guziak harekin,
Bat bederak baituzke.

Parterikan hoberena,
Zaude hautaturikan,
Kita ez dezakezuna,
Nihoiz zeureganikan.



Atsegin, gozo, sosegu
Grazia guziekin,
Bat bederak zakuskigu,
Iauna baita zurekin.

Huña fabore tuenak,
Debotak, Zerutikan,
Altxatu dadukanak,
Bihotza lurretikan.

Lurarekin dadukanak,
Bihotza iuntatua,
Eztu haren baithan Iaunak,
Hartuko ostatua.

Iauna da errenkuratzen,
Martaren ikhustez,
Zeren den hanbat penatzen
Munduko bizitzeaz.

Ditu errenkura berak,
Artha soberarekin,
Zeren tuen bat bederak,
Obrak Munduarekin.

Zeren dugun travaillua,
Presenteko hunentzat,
Ahanzirikan Zerua
Hilzen garenekotzat.

Trabaila gaitezen bethi,
Berze xedegatikan:
O Iauna zauzu permeti
Gaiten zure gaitikan.

* * *

Egja da, gure Iauna,
Gure bizi guzia,
Dugula daramagun,
Lurrarekin iosia.

Batak nahiz ohoreak,
Berzeak ontasunak,
Huna penaz nork bereak,
Nola tugun egunak.

Dakigularik direla,
Sari fin duketenak,
Alferretan diratela,
Hetaz ditugun penak.

Alabaiñan badakigu,
Hill beharrak garela,
Noiz ordean ezdakigu,
Orena daitekela.

Ez gaitezke bitartean,
Goza zure loriaz,
Gambia gaiten artean,
Daramagun biziak.

Ezpagara lurraganik,
Bizi apart garela,
Urrun gara zure ganik,
Eta bethi gibela.

Dagitzagun, dagitzagun
Gure obra guziak,
Nondik Zerua dukegun,
Eta fiña biziak.

Has gaitezen goizetikan,
Huntarakotz obratzen,
Saindu Kristinaganikan,
Exenpluen kobratzen.



Obra onetan hasten zen,
Goizean goiz danikan,
Mundu huntaz trufatzen zen,
Iaunaz orroiturikan.

Ea beraz gure obrak,
Lehenak guzietan,
Ditugun beti, Debotak,
Iaunaren ohoretan.

LAUGARREN REFLEXIONEA SEXTAREN GAIÑEAN

O Debotak, aditzagun,
Iaunak erran duena,
Nola trailla bat dugun,
Nezesario dena.

Hala diotsa martari,
Bat da nezesario,
Gure salbamendari,
Zaiokena balio.

Arimaren salbatzeko,
Egin behar duoa,
Hau da lana konplitzeko,
Gomendatzen zaikuna.

Huntaz artha behar dugu
Bizi aphur hunetan,
Ordainez nahi badugu,
Saririk Zeruetan.

Berze lanak egiezki,
Zertako tu gizonak,
Munduarentzat zuzenki,
Utzi behar direnak.

Ikhus agun huntarakotz
Bere ontasunikan,
Daramaken hill ondokotz
Doanak Mundutikan.

Debotak, beraz zertako
Traillaak munduan,
Gure salbamendutako
Eztitugun orduan.

Salbamenduko ez tiren,
Harzen ditugun penak,
Eztetzakegu ediren,
Saririk duketenak.

Ea beraz gure lanak,
Debotak, Mundu huntan
Diren harzen ditugunak,
Gure salbamendutan.

Hau da hau da trailla
Saria dikeguna,
Loriazko sosegua,
Iaunak promes duena.

OTHOITZA BIRJINARI SEXTAREN GAIÑEAN

Ene salbatzailearen Ama: zure bizitzearen Denbora guzia dohatsuki maitatzen eta sufritzen enplegatu duzuna: othoitzez nagotzu, irakats diezadazu Exerzizio dibino Hura, zure amudioaz pasionatua, eta zure penez bihotzean zaurthua naizela. Nabilan suspiraz zure ondoan, zure pena eta doloretan parte harzen dudala, hau da zure fabore arekien batean bethiere obretan ematera pretenditzen dudan trailla, zuk iduki duzun bideari narraiola, siñatzekotz, Neure bizitzearen korsua.



NONA

Sant-Eleonor duzue,
Nona hasten duena,
Debotak, ikhus azue,
Artha harthaz zuena.

Nahiz zela gorputzean,
Osasunarik gabe,
Etzaiten iar mahaiñean,
Nona konplitu gabe.

Errethaula bat bazuen,
Salbatzaillearena,
Nonan bethi hura zuen,
Kontenplätzen zuena.

Hartan zuen pintatua,
Iaunaren edaria,
Miagre khelderstatua,
Iuduek eskañia.

Huntaz zuen bere pena,
Zarasala ordean
Behazunez trata Iauna,
Eta ni banketpean.

Prinzesa hau hargatikan,
Iaunaren edariaz,
Zagoen orrhoiturikan,
Iate aldi guziaz.

Hañitz Biandaz bethea,
Mahaiña ikustean
Mahaiñ orde gurutzea,
Zadukan bihotzean.

Suspiretan zegoela,
Eta iotsi Iaunari
Zuri Khelder dizutela,
Niri hanbat ianhari.

Gauza gustuko enetzat,
Hanbat duzu kreatu.
Ordean, Iauna, zeuretzat,
Khirastuak hautatu.

Gauza guziez zerbitza
Nazaten mahaiñean,
Hargatik ene bihotza,
Daiteke gurutzean.

* * *

Debotak guziok Iuntan,
Akort behar zarete,
Khelderrezko banket huntan,
Sarthu behar zarete.

Banket hau da guzientzat,
Ianhari gustosoa,
Sasiamenduarenzat,
Konplimendu osoa.

Banket huntan kausitzen da
Iauna buruzagitzat,
Mahaiña gurutzea da,
Kehlderra Ianharitzat.

Huntaz arimak bazkatzen,
Dire bere gosean,
Eta bethi konserbatzen,
Zeruko bidean.



Gaiñerako Ianhariak,
Dire gorputzarenak,
Eta gero xixariak,
Hek diraten lekhutik.

Gorputzaren banketetan,
Fite doaz gustuak,
Bethi bere ondoretan,
Tustela disgustuak.

Khelder eta Miagren,
Ezdaite disgusturik,
Onzat Iaunak gurutzean,
Utzi du dastaturik.

Gonbidatzen gaituela,
Haren banket handian,
Bonaxira dagigula,
Zaiñek bere aldian.

Gurutzeko Mahaiñera,
Goazen huntarakotzat,
Ungi gero handik hara,
Gaiten sekulakotzat.

* * *

Gorputzaren naurimenduz,
Iauna minzo zaikula,
Darokun prezeptu sainduz,
Huna haren eskola.

Zer dukezuen iateko
Edatekoa nondik,
Etzarete penatuko,
Zeben gorputzen gatik.

Hetaz dugun artha sobraz,
Hargatik da sentitzen,
Eta gero bide beraz,
Gastiguz baliatzen.

Aberatsa minzo zela,
Granerako bihiaz,
Gorputzaren bazuela,
Han, zioen, frankiaz.

Huna bitartean boza,
Zerutik iausten dela,
Arima eta gorputza
Biak galdu tuela.

Minzo aizen gau berean,
Baduk orai zer egin,
Satanek hik ez ustean,
Baharaman berekin.

Ase bethez banketetan,
Uen bethi gogoa,
Ifernuan tormentetan,
Egik ora orroa.

Gorputzaren ase bethez,
Frankian dabillana,
Izanen da egun batez,
Urrikitan emana.

Daramak eskaspean,
Bizia borondatez,
Franko duke aitzinean,
Zeruetan ordainez.



Sari huneas dotatu,
Daiteke Zeruetan,
Iauna, haiñak, imitatu,
Baituke Munda huntan.

* * *

Desertura eramana,
Hanbat barurtu dela,
Sant-Eleonorek, Iauna,
Kontenplätzen duela.

O Iauna, Dio, zer da hau?
Iartzen naiz hizik gabe,
Berrogoi egun eta gau,
Zaudezela ian gabe.

Zure gorputz sakratua,
Dezazula humilla,
Gosez gero urthatua
Hanbat pena dadilla.

Oraño zakusadala,
Amundioaren suz,
Enegatik hill zarela,
Gurutzean egarsuz.

Gose eta egarritan,
Guzia penaturik,
Gurutzera iganikan,
Ioan zaizkigu Mundutik.

O Iauna, Dio, saiñduak,
Egidazu fabore
Zure gose egarsuak,
Paira, zadan nik ere.

Zeuren loriara, handik
Hartu duzu bidea,
Ezdaitela berzetarik,
Eman duzu legea.

Dudan beraz bizitzea,
Nik ere Munda huntan,
Xelder eta Miagrea,
Tudala ian ordutan.

Guzientzat ordenatzen,
Darokuzu Zerua,
Ordean denak penatzen,
Duke salbamendua.

Daramanak doloretan,
Mundu huntan bizia,
Lore gisa aranzetan,
Sentitzen du loria.

* * *

Sant-Antoni, eta san-Paul,
Burjes Desertukoak,
Zuenzat dire ahapal,
Bethi laudatzekoak.

Eman duzue eskola,
Gorputzak zer moldetan,
Mortifikatzen tugula,
Gaitesken Zeruetan.

Zuen bethiko barurak,
Minzatzen zaizkigula,
Gure gorputzen ardurak,
Fite kitatzagula.



Egunean eguneko,
Ogi puska zinduten,
Zuen goiz arratsetako,
Berzerik etzinduten.

Horra izan tutzuenak,
Naurimenduarena,
Zuen biziko egunak,
Desertuan barrena.

Baziñakiten gorputzak
Penaz behar zuela,
Eta haren othurunzak,
Gutiz behar zirela.

Iaunak berak irakatsi,
Zioten exenplua,
Bide huntaz ardiatsi,
Behar zela Zerua.

Hekin orrhoitzapenetan
Etzen nihoiz banketik:
Bere abstinenzietan,
Bizi ziren kontentik.

Iaunaren laudoriotan
Zuten artha guzia;
Gau egunak othoitzetan,
Huna hekin bizia.

Huna, huna, zer dagokan,
Debotak, gorputzari,
Entreteni ian gutitan,
Ukho gormandizari.

* * *

Barurak beldur zarete,
Diren zuen kaltetan,
Ez Debotak, ezdirate,
Baiñan ontasunetan.

Berekin du ontasuna,
Bethi abstenenziak,
Gorputzaren osasuna,
Arimakotz graziak.

Bazkora ethorri eta,
Garizuman egunak,
O Zeiñ handi duen besta,
Barur egin tuenak.

Gizonaren bizitzea,
Deitzen dut garizuma,
Mundutikan partitzea,
Haren bazko eguna.

Bozik dago barurturik,
Haiña bere bizian,
Partitzekotzat Mundutik,
Dagoena etsian.

Doazkigunaz gerostik
Gorputzak ahituaz,
Ahitzagun barurturik,
Gure salbamenduaz.

Geure refekzioanean,
Gero iarzen garela,
Iauna bere banketeian,
Imitatzen dugula.

Khelder eta Miagrean,
Beraz huntarakotzat,
Gurutzeko mahaiñean,
Hauk zituen berezat.



Gure arimako ona,
Ezin daite berzetan,
Sant-Eleonorek Nona,
Bethi zaraman hartan.

Fiña detzagun biziak,
Debotak, hark bezala,
Iaunaren Ian Edariak,
Bihotzean tugula.

REFLEXIONEA NONAREN GAIÑEAN

Ian edanezko sobrari,
Ihesi doakona,
Huna, Debotak, Iaunari,
Agradatzen zaiona.

Etzareten golotsegi,
Beraz iate horretan,
Zergatikan soberegi,
Baita zuen kaltetan.

Bere traillaurekin
Gutiz nauritzen denak,
O zer bozkariorekin,
Daramatzen egunak.

Izanagatik gutia,
Nahiz doi doia duen,
Iduri zaio handia,
Zeren trailluz duen.

Esparanzan traillauekin,
Oraino dadukala,
Hobekiago Zeruak,
Bazkatuko duela.

Haiñaz erran behar dela,
Dakusagu, Debotak,
Othurunzak dituela,
Gurutzeko banketak.

Iauna bera gurutzean,
Tratatu zen khelderrez,
Asetzen da bihotzean,
Iate aldi guziez.

Dohatsua da zorthean,
Ezin daite berzela,
Iartzen dena Mahaiñean,
Iaunaz orrhoitzen dela.

Iauna duke saihetsean,
Haiñak bere kideztat,
Parte haren banketea,
Zuenetik beretzat.

Khelder eta Miagrea
Ziren haren banketak,
Hetan geure bizitzea,
Daramagun, Debotak.

OTHOITZA BIRJINARI NONAREN GAINEAN

Zeruko eta lurreko Erregiña: zure graziazko handidasun guzietan Zeure Naurimenduaren ogia Khelder eta Miagrea bethi busti izan duzuna, zeñez zure seme bakhotxa bere gurutzeko egarsuan zerbitzatu izan baitzen: othoi ardiats diezazu, senti dezadan hekien Khirastasuna Munduak presenta ahal dietzakikedan banket guzietan, zure Exenplu saindua segitzen dudala, ene sensuek errezibi dezate arrozoiñaren legea: baiñan nola prezeptuak lekzione fruitu gabekoak baitire baldiñ graziak lehenik iustruitzen ezpaigaitu, obteni diezadazu grazia hura, zuk Irakasten darotazun Instrukzione saiñduetarik neure probetxua egin dezadantzat Zeruko Errekompensaz gero goza naiteken bezala.



BESPERAK

Ordu da ordu, Debotak
Atenzionerekin,
Erratekotzat bezperak,
Saindu Helenarekin.

Hark Bezperak erratea,
Bere othoitz lekhuana,
Hilzeaz zen orrhoitzea,
Guti uste orduan,

Zakusala begietan,
Haren bizi eguna
Zioala lasterketan,
Hurbiltzen gau illhuna.

Zakusala begietan,
Haren bizi eguna
Ziola lasterketan,
Hurbiltzen gau illhuna.

Mendi saindu Kalbaria,
Ikhusi bezain sarri,
Uzten dio Inperia,
Gurutze sainduari.

Tronu orde gurutzea,
Seska Zeproarenzat,
Khorroaren Aranzea,
Hartu ditu beretzat.

Hauk hartu zituenean,
Bihotzean barrena,
Ematen du aitzinean,
Hilzearen orena.

Bizi huntaz trufatua
Zadukan hill artean,
Aiñgeru bat pintatua,
Errethaula batean.

Aiñgeruak gero hartan
Markatzen zioela,
Erreloia baten markan,
Bezperen muga zela.

Bide huntaz orrhoit zediñ
Hilzearen Bezperaz,
Gero suprendi etzediñ
Egoteko ikharaz.

Has zedilla adiutan,
Mundu huntaz etsia,
Partitzeko Bezeperetan,
Zakusala bizia.

* * *

Inperatriza saiñdua,
Arrats alde guziaz,
Apart erretiratua,
Etsitua biaz.

Minzo zaio Ienkoari,
Partitzeaz Mundutik,
Oihuz haren graziari,
Iauts dakion Zerutik.

Prest naiz, Dio, partitzera
Bainan nora ioanen naiz,
Denboratik sekulara,
Zurekien ezpañaz?



Ioan behar dut, badakusat,
Hau da pena ordean,
Non nabillan ezdakusat
Ezpazaitut aldean.

Ioan behar naiz egia da,
Eta Ioan naizenean,
Nitaz zer gerthatuko da,
Ene hutsen gaiñean?

Badiotzat adiuak,
Bethikotz munduari,
Nola diozket Kontuak,
Zure Iustiziari?

Ioan behar dut sekulako,
Ordean dakidala,
Iuje, Partida, Lekhuko,
Obrak diturkedala.

Ordua da parti nadiñ,
Naiñan nitaz lastima,
Duzun, Iauna, eros dadiñ,
Berriz ene arima.

Zure odol Sakratuaz,
Zelarik eresia,
Esklabotzat bekhatuaz,
Berriz dago iarria.

Iauna urrikaldurikan,
Har nazazu eskuan,
Noan gero Mundutikan,
Plazer duzun orduan.

* * *

Etzuen penatzen faltak,
Saiñdu hau bihotzean,
Ikhus azue, Debotak,
Penetan bitartean.

Hill ondoko examenaz,
Dago espantatua,
Iaunak obra iustuenaz,
Beharko du kontua.

Gertha zekionaz geroz,
Deia ustekabetan,
Munduari egun oroz,
Zagokan adiutan.

Bizi hunen ez uzteko,
Debekuzko gathea,
Etzen aski tratatzeko,
Haren borondatea.

Azpianago zadutzan,
Sensutako zagitak,
Ezen bere zerbizutan
Erresuman suietak.

Bide huntaz kausi zediñ,
Bere libertatean,
Eta penetan etzediñ,
Mundutkan ioatean.

O Milletan dohatsua,
Biziaz trufaturik,
Dagoena orrhoitua,
Noiz doaken Mundutik.

Etsitua molde huntan,
Bizia daramala,
Hill, momentu guzietan,
Behar balu bezala.



Huna zer, Debotak, huna,
Beharrena duzuen,
Bethiko orrhoitzapena,
Noiz hill behar duzuen.

Orrhoitzen gutienikan,
Bat bedera denean,
Herioak deithurikan,
Daitekela lurrean.

* * *

Daramanak bizitzea,
Debotak, plazeretan,
Hill beharraz orrhoitzea,
Eztu gomendiotan.

Haiñitz, aldiz heldu arren,
Herioa gogora,
Manatzen du fite arren,
Daokola kanpora.

Bata ungi izatean,
Bertzea gaste dela,
Bizi dire Siñhestean,
Nekez hillen direla.

Alabaiñan Sekulako,
Badukete manua,
Mundutikan partitzeko,
Dela hekin ordua.

O berri latz, eta triste,
Bihotz transigarria,
Doazen hobira fite,
Heldu zaien berria.

Dezagun, Debotak, pisa,
Deiaz ustekabetan,
Arima bekhatorosa,
Nola daiten penetan.

Behar dela presentatu,
Iaunaren aitzinean,
Xeheki examinatu,
Klarki dakusanean.

Aitzinera heldu zaizko,
Bere falta guziak,
Gogoz, hitz, eta obrazko,
Egiñ tuen guziak.

Formatzekotz, urikoia,
Hetaz bere gogoan,
Guzia da nahasia
Bereganik kanpoan.

Sekulako sententzia,
Iuje Iustuarena,
Da haren pena guzia,
Enzun behar duena.

* * *

Debotak hobiratzeko
Emana da arratsa,
Noiz ordean haratzeko,
Seguranzarik ezta.

Baiñan den arrats, naiz goiz,
Ustekabez hill bedi,
Ezdaite zuhurra nihoiz,
Herioaz surprendi.



Baitaki ustekabetan,
Demakela hobira,
Prestaturik hartatikan,
Dago haren begira.

Ikhusten du interesa
Sekulaz doakola,
Bethikotz errekonpensa,
Edo pena dukela.

Inperatriza saiñdua
Etzrinduen perillik,
Herioz surpreriditua,
Gertha zeĩntezen hillik.

Baitziñaraman bizia,
Langiturikan penaz,
Munduan berantetsia,
Hilzearen orenaz.

Bethiere orroitua,
Azkeneko instantaz,
Gal etziñezan Zerua,
Bethi orrhoitu faltaz.

O Debotak, debotr gisa,
Orrhoit orrhoit hilzeaz,
Eta gero ungi pisa
Hill ondoko zortheaz.

Zenbat izan da Munduan,
Hill uste etzuenik,
Herioak Ifernuan,
Baitaduka emanik?

Dugun bethi memorio,
Gabaz eta egunaz,
Geure hillgarri herio,
Begietan dugunaz.

* * *

Debotak, aithor dezagun
Hilzeko bat bederak,
Nahiz den gau, nahiz egun,
Ditugula Bezperak.

Abertitzen gaituela,
Daramagun arrutak,
Errateko prest garela,
Hobirako Konpletak.

Muga hau kontenplaturik,
Kitatzeko Mundua,
Gaudezentzat atzaturik,
Noiz dukegun oihua.

Ziñadukan Zeure baitan,
Zuk Helena saindua,
Hilzerako Bezperetan,
Bethi pensamendua.

Gozatzeko hill artean,
Zer nahi zen plazerez,
Izan arren podorean,
Trufatzen zen guziez.

Inguratua zadukan,
Ohoreez munduak,
Baiñan haren gogotikan,
Xoil ziren Urrunduak.



Bere autoritatean,
Zuen nahi zuena,
Alabaiñan bihotzean,
Zadukan hill orena.

Zenbatenaz hurbillago,
Are senti baitzuen,
Hanbatenaz gehiago,
Kontentamendu zuen.

Dohatsu bere burua,
Zuela, zioela,
Ezen munduko korsua,
Egin hurren zuela.

Huna, Debotak, manera,
Bezperen errateko,
Nola gaudezen lurrera.

SEIGARREN REFLEXIONEA BEZPEREN GAIÑEAN

Ordenaz gauza guziak
Dakuskigu lurrean,
Eta gizonen biziak,
Desordena batean.

Egun, gau, eta Sasoiñak,
Erregelaz dabilta,
Etsai gisa desordenak,
Gizonak darabiltza.

Ezin gizonak derrake,
Deus ordenaz duela,
Hobirarik baitaiteke,
Pensatzen eztuela.

Sorthu bozaiñ sarri bata,
Berzea gazterikan,
Berzea zahartu eta,
Baikoaz mundutikan.

O, Debotak, ikhas beraz,
Ezta bada hunetan,
Bizitzea zer maneraz,
Dugun mundu hunetan.

Desordenaz egizue,
Ordena bat zebenzat,
Zaudeten, Manazazue,
Prest hobiratzetat.

Kristauaren zuhurzia,
Huntan da fundatua,
Idukitzea bizia,
Hilzera prestatua.

Siñhestetik, osasunak,
Ezdezake gibela,
Ustekabez hill egunak,
Sesi ezdezakela.

Adin limitaturikan,
Bizitzeko segurki,
Iaunak ordenaturikan,
Eztuela badaki.

Ea beraz zuhur gisa
Debotak zuhurzia,
Dugun eta gero pisa,
Zertan dugun bizia.



OTHOITZA BIRJIÑARI BESPAREN GAIÑEAN

Maria Saindua, Ienkoaren Ama, ene egunen Konsolamendua, ene biziaren azken eguna Sarri iragateta doatenaz geroz, balia zakizkit arren haren korsuaren fiñatzeko bitartean argitzat, eta gidatzat neure bizia dohatsuki fiña dezadantzat. Ikhusten dut iadanik azken hezturan naizela, eta nola errezibitu beharko baitut, edo gastigua, ez nazazula othoi abandona neure azkeneko partiadan, zeñetarik dependitzen baita, bata, edo berzea. O graziaren Ama fabore hunen eske nagotzu.

KONPLETAK

Margarita Lorrenako
Alezungo Dukesak,
Debotak, egun oroz,
Hauk zituen Konpletak.

Nola eziñ baitzaiteken
Bere baithan sasia;
Herioaz beraz baizen,
Zer zen haren bizia.

Manatzen du berehala,
Pintazaten: ordean,
Hill izan baliz bezala,
Gathabute batean.

Gero gathabute hura,
Kontenplätzen zuela,
Zedin osoki segura,
Hill hura bera zela.

Hartan bere miseriak,
Bere meditatzean,
Bazekutsan ageriak
Nola mirail batean.

Egiezki naitzen hura,
Nazantzat representa,
Ene, Dio, hill figura,
Ala mirail perfeta.

Ageri naiz berehala,
Zer naitzen izatean,
Emana banintz bezala,
Hilla gathabutean.



Hemendikan aitzinera,
Iakiñen dut nor naizen,
Gathabuteko hill hura,
Baizen, nola eznaizen.

O Iauna zazu perneti,
Zarasan bere baithan,
Mirail huntan nadin bethi,
Mira goiz arratsetan.

Ni hillari nagokala,
Beha pensamenduaz,
Nadiñ amurus bezala,
Neror neure buruaz.

* * *

Huna exenplutzat huna,
Zer garen bat bedera,
Guk propioki duguna,
Lurrakioaki lurrera.

Debotak, huntarakotzat
Ikhus agun zer garen,
Gaur ezpada biharkotzat,
Gaitzekela lurraren.

Orai zerbait didurigu,
Garenaz berzerikan,
Baiñan sarri dadikegu,
Zer dugun geurerikan.

O Ienkoa ez berzerik,
Lurrak garen bezala,
Eztela seguragorik,
Lur izanen garela.

Orrhoit gaiten huntarakotz
Hillik dauden guziez,
Hetan gero iakitekotz,
Zer daiteken biziez.

Berak oihuz dagozkigu
Atzo hek hill direla,
Eta gaur, ezpadakigu,
Gure aldia dela.

O egiazko oihuak,
Aditzagun biziok,
Hobirako partituak,
Gaudezela guziok.

Lurretikan izatea,
Dadukagun bezala,
Haratzeko bitartea,
Instantetan dugula.

Instantezko gathe batez,
Da bizia lothua,
Zeiña bera instant batez,
Baitaite urratua.

Amarrarik, ekiazki,
Dakiguna, lekhuko,
Nihon eztaiteke aurki,
Haiñ erreski hausteko.

* * *

Debotak, hill behar da,
Ordena da sortzetik,
Nor nahi partiadan da,
Sarri apart Mundutik.



Zertan beraz okupatzen
Daramagu denbora,
Ikhusagun nola goazen,
Bizitikañ kanpora.

Gure obrak zertan dire,
Heztura handi huntan,
Galdu gare ezpadire,
Gure salbamendutan.

Ezin eskapa gaitezke,
Ioan behar da Mundutik,
Haiñ guti ahal gaitezke,
Sentenzia Iustutik.

Gizonak zertako ditu,
Lurretikan tuenak,
Lur berak beharko ditu,
Hark ematen tuenak.

Obraz bertze zer nahi den
Daiteke lurrarenzat,
Nahiz bizi nahiz hil den,
Obrak gizonarenzat.

Khexa gaiten obra bilzen
Obra daite gurea,
Egun oroz gare hilzen,
Huna gure ephea.

Zer pensatzen othe dugu?
Argitzagun begiak;
Sarri bethe behar tugu,
Hutsik dauden hobiak.

Mira gaiten geure baithan
Zer garen iakiteko,
Deusere ez Mundu huntan,
Bai ordean berzeko.

Bat bederak hala dela,
Har beza har buruan,
Bizirikan hilla dela,
Izan arren Munduan.

* * *

Gure Prinzesa handia,
Berezko Mirallean,
Ikhusten zen zen guzia,
Hillik gathabutean.

Zepro, eta tronu gorez,
Guzia billuzirik,
Zor zitzaizkon ohoreez,
Etzedukan konturik.

Etzitzaion handi zela,
Bere zuen korthean,
Non etzen, kausitzen zela
Baxotasun batean.

O Debotak, zer bidea,
Zerurako duguna:
Kontenpatzen egotea,
Geure ezdeustasuna.

Huna zure aitzinean,
Iauna handi direnak,
Bere humiltasunean,
Bizitzea dutenak.

Haiñek dute pintatua
Obietik ederrena,
Sepulturaren lekhua,
Bihotzean barena.



Aithor bedi egiada,
Ezta ustekabea,
Sepulutarakoa da,
Dadukagun bidea.

Badakigu ezgarela,
Immortal mundu huntan,
Kontestarikan eztela,
Noizbait hill behar huntan.

Inoranza ordean,
Debotak, dakiguna,
Eta gero bitartean,
Dathoren hill eguna.

O egun triste, o bethi,
Dolutan aitekena,
Othoi, Iauna, ez permeti,
Hala gure orena.

* * *

Bat bederak bizi huntan,
Hanbat on eziñ duke,
Nola hillen lekhuetan,
Gerthatzeaz baituke.

Ikhusten du klarki hetan,
Bera zer izanen den,
Hek bezala hill ohetan,
Nola iarri behar den.

Bere aita edo ama,
Abride edo urkho,
Adiskidezko bilduma,
Badituzke lekhuko.

Minzo zaizkigu guziok,
Ikhusagula hetan,
Eta zer garen biziok,
Bizi aphur hunetan.

Huna zer, dioten, garen,
Lur baizen ezgarela,
Kanpotik iduri-arren
Zerbait berze garela.

O Prinzesa dohatsua,
Zu zu eskola huntan,
Izan zara arthatsua,
Hobirako arrutan.

Zuk gathabuten batean,
Hobirako hurbilla,
Ziñadukan aitzinean,
Zeure burua hilla.

Asistitzen zinduela,
Zeure hill egunean,
Izan baziñe bezala,
Hillik gathabutean.

O Debotak pinta gaiten,
Prinzesa hau bezala,
Kontenplätzen eman gaiten,
Bizi hillak garela.

Orrhoit gaiten azkeneko
Partitzeko instantaz,
Gal ezdezagun bethiko,
Zerua geure faltaz.

* * *



Gorputza ohorei dela
Iakiten den pontuan,
Nor nahi den berehala,
Ahanzi da Munduan.

Ezkillaren azkeneko,
Soiñua io denean,
Akhabo dire hartazko,
Solasak jendartean.

Ea beraz orrhoituak,
Debotak, egun hartaz,
Gaude interesatuak,
Salbamenduko arthaz.

Arratsekotz egiñikan,
Desira gindukena,
Has dezagun goizetikan,
Hura da segurena.

Perilletan eman gabe,
Geure salbamendua,
Denbora iragan gabe,
Billhazagun zerua.

Testamentez usten tutzu
Ondotik obra onak,
Hek usten tu, begirautzu,
Ezin berzez gizonak.

Duzun zerork bethiere,
Zeure obren kargua,
Bada pena hala ere,
Emateko kontua.

Bizi denak Mundu huntan
Hilla baliz bezala,
Ber berak obrak kontutan,
Bizi da, dadutzala.

Zuk zuk hau obratu duzu
O Prinzesa handia,
Hiltzat iduki baituzu,
Zeure buru bizia.

Meditazione huntan
Ziren zure konpletak,
Bizi gaiten fazoiñ huntan,
Hil artean,
Debotak.

ZAZPIGARREN REFLEXIONEA KONPLETEN GAIÑEAN

Debotak ikus dezagun,
Zer den gure zorthea,
Begietan nola dugun,
Hobirako ephea.

Prestik gaudez haratzeko,
Fite hartan barrena,
Pontuan dago iotzeko,
Partitzeko orena.

O milletan dohatsua,
Bere orrhoitzapena,
Dadukanak hedatua,
Sepulturan barrena.

Interesik handiena,
Debotak, hemen dugu:
Bethiko orrhoitzapena,
Hobiaz behar dugu.



Ikhasteko berehala,
Hango hiletarikan,
Sarri geroz gaitezke,
Hekin balsaturikan.

Iragaitzaz bizi gara,
Lurraren gaiñ aldean,
Barrenera behar gara,
Benturaz gaur berean.

Ez hau hori harturikan,
Aitzitik, billuziak,
Munduari utzirikan,
Obrez berze guziak.

Debotak dena orrhoitzen da,
Sepultraz munduan,
Obra biltzen penatzen da,
Atsegiñen lekhuana.

Huna zer den bizitzea,
Debot gisa munduan,
Hilla dela pensatzea,
Guti uste orduan.

Huntarakotz obra onak,
Ditu gomendiotan,
Daramatzagun egunak,
Debotak, molde huntan.

OTHOITZA BIRJIÑARI KONPLETEN GAIÑEAN

Bizitzearen Ama: Haren Autora Munduari ekharri diozunaz geroz, Egidazu arren fabore, hemendik aitzinera ene obiet partikularzat den bethiere herioa, neure herrautsetan bethi miratzen naizela

hetara konbertitu baiño lehen, neure Arima sekulako sepulturatik segura dezadantzat. Eta nola korrupzioea baita ene izatearen lehen-biziko hastea, bethe diezadazu haiñ borthizki egia huntaz neure Imajinazionea, non ez nadiñ probetxu gabe billha neure burua baithan, Ezen badakit, neure ezdeustasunaren meditazioea, Zeruko gidatzat baliatuko zaitala, huna othoitzza, ene Ama graziaz bethea, aitzinera ematea eta bethi emanen darotzudana.



MEDITAZIONEAK

Debotak, Meza sailduaren enzutean, nola hura baita gure salbatzaileak bere heriotze eta Pasione sailduaren orrhoitzapenetan ordenatua, Debotki enzun dezazuenzat, Nezesario da, Pasione saildu haren ponturik prinzipalenez orrhoit zaitesten: Eta nola beregainki zazpi kausitzen baitire zeinetan Iesu-Khristo gure Salbatzaileak odola isuri izan baitzuen.

Lehenbizikoa da, Getsemaniko baratzean, odolezko azotatu zutenean.

Hirurgarrena, han berean aranzeko Khoroa fuiñetaraño sarthu ziotenean.

Laugarrena, gurutzea soiñean Ierusalameko karriketarik iragan zenean.

Bortzgarrena, Kalbariako Mendian eskuak eta oiñak itzatu ziotzatenean.

Seigarrena, itzatu ondoan airean gora altxatu zutenean.

Zazpigarrena, soldadu baten Lanza kolpe batez saiñetsa erdiratu zioenean.

Zazpi pontu haukien gainean, ondoan tuzketzue, separatuki bakhotxaren gainean, ondoan tuzketzue, separatuki bakhotxaren gainean, Meditazioeak Bersuetan.

Othoizten zaituztet errateaz dagozten Debozionearekin.

LEHENBIZIKO MEDITAZIONEAK

GETSEMANIKO BARATZEAN

ODOLEZKO IZERDIA ISURI ZUENAREN

GAIÑEAN

Zuri Iauna hanbat penez,
Emateko eskerrak,
Nigatik hartu tutzunez,
Falta zaizkit indarrak.

Getsemani baratzean,
Ariman tristaturik,
Bazakuskit gorputzean,
Odolez izerturik.

Iauna, nagotzu othoitzez,
Egindazu fabore,
Nadiñ trista neure faltez,
Eta dudan dolore.

Iduk bietzat begiak,
Nigarretan urthuak,
Zure odol izerdia,
Eta khen bekhatuak.

Pater Noster. Ave Maria

BIGARREN MEDITAZIONEAK

PILATUSEN ETXEAN HARROIN BATI

LOTHURIKAN ODOLA

ISURI ZUENAREN GAIÑEAN

Bazakuskit, ene Iauna,
Odolpean oraiño,
Hala zara, hau da pena
Burutik oiñetaraño.

Azote kolpez zaurthurik
Eziñ erran daitenaz,
Harroiñ bati Iuntaturik,
Pilatusen ordenaz.

Odol isuri duzuna,
Euzun dazu othoitzaz,
Gertha bekit, ene Iauna,
Garbitzeko bihotza.

Bekhaturik egin gabe,
Obraz eta gogoan,
Nadin gero beldur gabe,
Gastigutik kanpoan.

Pater Noster. Ave Maria



HIRURGAREN MEDITAZIONE A
PILATUSEN ETXEAN BEREAN
ARANZEZKO KHORA BURUAN
FUINETARAINO SARTHURIK
ODOLA ISURI ZUENAREN GAIÑEAN

Ene Iesus! ezintzaket,
 Altxa gora begiak
 Nola dietzaketzuket,
 Eskerrezko graziak?

Huna non zaren oraiño,
 Odoletan, Ienkoa!
 Sarthurik fuinetaraiño,
 Aranzezko Khoroa.

O odol preziatua
 Isuri zinduen a,
 Nauzun hartaz zeuretua,
 Enzun dazu auhena.

Ezar dazu bihotzean,
 Aranzezko Khoroa
 Mundutikan partitzean,
 Dudan graziatzkoa.

Pater Noster. Ave Maria

LAUGARREN MEDITAZIONE A
GURUTZEA SOIÑEAN IERUSALAMEKO
KARRIKETARIK IRAGATEN ODOLA
ISURI ZUENAREN GAIÑEAN

Ioan ziñduen gurutzea,
 Iauna, Kalbariara,
 Odolezko uholdea,
 Zaritzula lurrera.

Huna, Ierusalameko,
 Zuk iragan gustiak,
 Karrikak dire lekhuko,
 Odoletan bustiak.

Zure odol saiñduaren,
 Prezio sakratua,
 Bekit pazienziaren,
 Iabe errendatua.

Haren bidez paira tzadan
 Atsekabe guziak
 Arimakotz kobra tzadan,
 Iauna zure graziak.

Pater Noster. Ave Maria

BORTZGARREN MEDITAZIONE A
KALBARIAKO MENDIAN ESKUAK ETA OIÑAK
ITZATURIK ODOLA ISURI ZUENAREN
GAIÑEAN

Ez xortaka, ene Iauna,
 Baiñan, furs nigatikan,
 Hau da Odol darizuna,
 Oiñ eskuetarikan.

Egiñ tuste zure baithan,
 Zuek Iudu Kruek.
 Maiñha zaiten odoletan,
 Itze kolpez Kanalak.

Zuez, Itze Sakratuak,
 Odol saiñduz bustiak!
 Bekizkit gurutzatuak,
 Neure sensu gustiak.



Bihotza gurutzaturik,
Den guzia osoki,
Ezdagidan bekhaturik,
Baiñan bizi saiñduki.

Pater Noster. Ave Maria

SEIGARREN MEDITAZIONEA
ITZATU ONDOAN AIREAN GORA
ALTXATURIK ODOLA ISURI ZUENAREN
GAIÑEAN

Ene arima, non zara,
Huna, Ienkoa nola,
Arbolatzen duten gora,
Dariola odola.

Elas! Iauna darizula,
Kantoiñ guzietarik,
Sarri zaite eztuzula,
Gorputzean xortarik.

Zure odol isuriak,
Enegatik zurrutan,
Iauna Miserikordiak
Bekizkit Mundu huntan.

Lurretikan altxatuak,
Bethi neure nahiak,
Dadutzadan hedatuak,
Gurutzera begira.

Pater Noster. Ave Maria

ZAZPIGARREN MEDITAZIONEA
SOLDADU BATEK LANZA KOLPE BATEZ
SAIHETSA IDEKIRIK ODOLA ETA URA
ISURI ZUENAREN GAIÑEAN

Lanza kolpez hill ondoan,
Eztuzunzat xortikan,
Huna Odola non doan,
Zure saihetsetikan.

Ahiturikan guzia,
Ur darizu lekhuko,
Fiñatu duzu bizia,
Gizona salbatzeko.

Zaren ahitua beraz,
O odol sakratua
Dukedantzat gero zutaz,
Arima salbatua.

Zure amudioaren,
Lanzaz huntarakotzat;
Har nazazu, Iuna, arren:
Zaurthurikan zeuretzat.

Pater Noster. Ave Maria

GORPUTZ SAINDUA ALTXATZEN DENEAN
ERRATEKO

Ene salbatzaillearen,
Gorputz preziatua:
Ienکو eta gizonaren
Naturaz bestitua:



Gurutzean enegatik,
Ofrendatu zarena,
Ene salbatzeagatik,
Han hill izan zarena.

Badagotzu adoratzan,
Ene bihotz guzia,
Eta humilki eskatzen,
Dudan zure grazia.

KALITZA ALTXATZEAN ERRATEKO

Isuri izan zarena,
O odol Sakratua!
Ene erreskatarena,
Egiteko pagua.

Libro ezarri nauzuna,
Zerurako bidean,
Loriazko ontasuna,
Emateko xedean.

Hemendikan hara bethi,
Duzun nitaz lastima,
Eta ez dudan permeti,
Esklabotzat arima.

MEDITAZIONEAN PASIONE SAIÑDUAREN GAIÑEAN

Nahasten naiz, gabe iartzen,
Neure adimenduaz,
Orrhoitzeaz, ikharatzen
Pasione saiñduaz.

Ene Iesus! oaits-zaitela,
Lurrerat aita ganik,
Eta gero hill zaitela,
Gurutzean emanik?

Zer da hau ene Ienkoa,
Zu gurutze batean,
O! ezin erranezkoa,
Bi ohoiñen artean.

Zer ere baitu Naturak
Kruelik bere baithan,
Ikhus dezan Kreaturak
Kreatzaillea baithan.

Ez dezan utz tiraniak,
Penarik ahanztera,
Zuri ondoan guziak,
Sufriarazitza.

ZLu zara gauza guzien,
Iauna, Kreatzaillea:
Halere pena guzien,
Errezibitzailea.

Baiñan, Iauna, enegatik,
Hanbat penen artean,
Ene salbatzeagatik,
Hill zare gurutzean.

Kitatu tutzu Zeruak,
Ni urrikaldurikan,
Ikhusirik bekhatuak
Nendukala hillikan.

Nuenzat nik bizitzea,
Ioan zara gurutzera,
Zerorek heriotzea
Enetzat sufritza.



Zer pena beraz ezduket
Ordaiñez sufrituko?
Baiñan halere ezduket,
Zorra satisfatuko.

Zer dolorez beharko naiz
Iarri sentimentan?
Ez, Iauna, garabez ez naiz,
Sarhuko nihoiz hetan.

Zuk sufritu tutzun penak
Tuzket eskolatzeko,
Arribatzen zaizkidanak,
Bihotz onez hartzeko.

OTHOITZAK

SAKRAMENDU SAINDUAREN ERREZIBITZEKO AITZINETIK EGITEKO OTHOITZA

Heldu naiz aldarean
Banket preziatura,
Zure seme bakhotxaren,
Iauna, Sakramendura.

Baiñan beharra bezala,
Heldu naiz haren gana,
Eria doan bezala,
Mirikuaren gana.

Lizun eta tatxatua,
Ithurri Sakratura,
Iauna, gero garbitua,
Nadiñ zure gustura.

Itsutua argiaren,
Nola ahal, ondoan,
Gorputz Preziatuaren,
Huna, Iauna, non noan.

Guziz eskas eta gabe,
Huna ene lastima?
Ageri dut erran gabe,
Nola dudan arima.

Othoi beraz, ene Iauna,
Ikhusazu eria,
Kobra dezan osasuna,
Egiozu grazia.



Ikhusazu lizundua,
Zu iduri zuena,
Khen iezozu bekhatua,
Hark daduka lizuna.

Itsua da, guda zazu,
Penaz badu zer egin,
Iauna urrikal bekizu,
Dabilantzat zurekin.

Pobre eta billuzia
Dago erendaturik,
Besti bedi den guzia,
Zutaz faboraturik.

Errezibitzeko arren,
Dine errendatua,
Nadin zure semearen
Gorputz preziatua.

Fazoiñ huntan dukedantzat,
Eskas naizen guzia,
Arimaren Ianharitzat
Aiñgeruen ogia.

Bizi naiteken bezala,
Ogi saiñdu harekin,
Ezpaldin banintz bezala,
Neure buruarekin.

SAKRAMENDU SAINDUA ERREZIBITU ONDOAN ESKEZ EMATEKOAK

Badakit ahal guziak,
Enituzkela aski,
Iauna, nik zuri graziak,
Emateko dineki.

Utzi nauzu hurbiltzera,
Bekhatore handia,
Aldareko Mahaiñera,
Han nadinzat sasia.

Sobra Miserikordiaz,
Darotazu usatu,
Graziatzko Ianhariaz,
Zeren nauzun bazkatu.

Zure amudioaren,
Hau da obra thailla!
Ian dut zure semearen,
Gorputz Preziatua.

Ez dadilla othoi gertha,
Beraz ene kaltetan,
Egungo ene banketa,
Baiñan salbamendutan.

Dadiñ ene fedearen,
Bethi borthitzgarria,
Zeiñ nahi den atakaren,
Defensatzat iarria.

Gerta bekit bizioen,
Khasatzeko ariman,
Gehiago eznaoan,
Eman nauten lastiman.

Karitate, humiltasuna,
Bertze Berthuteekiñ,
Zure Maitetarik nauzun,
Tudan bethi neurekin.

Nadiñ haren bidez bethi
Zurekin iuntatua,
Baiñan, Iauna, ez permeti,
Naizen separatua.



Bekit gobernatzekotzat
Dohatsuki munduan,
Eta Zeruko gidatzat,
Partitzeko orduan.

Harat arribatu eta,
Jauna, bide hunetaz,
Dudan sekulako besta,
Loriazko banketaz.

Aiñgeruekin batean,
Balsatua ni ere,
Zaitudala aitzinean
Ikhusten bethiere.

SAN FRANZESEN LAUDORiotan

Bethiere laudatzeko
Zara saiñdu handia,
Zordun zaitzu sekulako,
Bekhatore guzia.

GLure salbatzaillearen,
Iduria zeurekin,
Gidaritzat gaxo haren,
Zeure bortz zaurirekin.

Zu izan zaran bigarren,
Hari behar orduan,
Illhun orde argiaren,
Emateko Munduan.

Ikhusirik hastandua,
Zagoela zerutik,
Ifernura prestatua,
Partitzeko Mundutik.

Zeure bihotzeko penez,
Hanbat sentimenekin,
Haren gatik zintuenez,
Begiko nigarrekin.

Mobitu zen berehala,
Trinitate guzia,
Urrikaltzen zitziola,
Gizonaren bizia.

Bizi, Damnazionera,
Arruta zadukana,
Zutaz Zeruko bidera,
Izatu da emana.

Zure etxe sakratua,
Aski dugu lekhuko,
Bereziki hautatua,
Grazian emateko.

Bethiko konzedituak,
Zure Induljenziak,
Dadutza konsolatuak,
Bekhatore guziak.

Esker beraz darotzugu,
O gure faborea,
Zutaz kausitzen baitugu,
Zerurako bidea.

Bekhatuak barkhaturik,
Dugun salbamendua,
Huna graziaz betherik,
Zure etxe saiñdua.

Baiña, othoi mundu huntan.
Hala nola grazia,
Dugun zutaz zeruetan:
Sekulako loria.



DIES IRAE DIES ILLA

Egun ikharagarria,
Azkeneko eguna,
Mundu akhabagarria,
Iklusiko duguna.

Berehala hill guziak,
Diratezke orduan,
Hobitarikan ilkhiak,
Tronpetaren soñuan.

Aitziñera tronuaaren,
Ioan beharko dukete,
Nork bere sentenziaren,
Berriak han tuzkete.

O ikhara ordukoa,
Iujea ikhustean,
Gurutzatu den Ienkoa,
Tronuaren gaiñean.

Obren examinatzekotz
Dagoela iarria:
O Examen huntarakotz,
Bihotz trasigarria.

Aitzinera ekharriko,
Daiteke liburua,
Bat bederak aditzeko,
Bere obren Kontua.

Egin tugun obretarik,
Hala nola Munduan,
Ahantz, edo estalirik,
Ezdaiteke orduan.

Zer derraket ordu hartan,
Nor fabore aldean,
Iustua bera penetan,
Kausituko denean.

Ikharazko Majestate,
Handiaren Ienkoa,
Duzun nitaz pietate,
Nadiñ zerurakoa.

Zerutikan enegatik,
Iautsi zara lurrera,
Ene salbatzeagatik,
Gurutzean hilzera.

Eztakidan alferretan,
Beraz Ienko maitea,
Gertha, baiñan faboretan,
Zure heriotzea.

Iuje Iustu Benganzaren
Orduan zaitezkena,
Zaizkit, barkhamenduz arren
Baliatzen zarena.

Kriminel naiz, eta hala,
Bizi naiz ikharetan
Baiñan ikhus Iauna, nola,
Nagotzun nigarretan.

Barkhatu Madalenari,
Hañitz falta diozu,
Gurutzean ohoiñari,
Halaber diotzatzu.

Esparanzan bethiere,
Nagoke hek bezala,
Urrikalduko ni ere,
Agien natzaitzula.



Hala gaiztoetarikan,
Apart onen artean,
Naitekela Emanikan,
Eskuiñeko aldean.

Madarikatu guziak,
Bistatik khasaturik,
Naukela zure graziak,
Benedikatutarik.

Othoitzez, Iauna, humilki,
Bihotzetik nagotzu,
Narraitzun bethi fidelki,
Zerork gida nazazu.

O egun nigarrezkoa,
Beharko dukeguna,
Guzion Iuiatzekoa,
Azkeneko eguna.

Barkha, barkha Kreaturei,
Iauna, duten Zerua,
Emozute defuntuei
Sekulako pausua

Amen.

TENPESTAZ ATAKATUAK DIRENEAN, MARIÑELLEN OTHOITZA

Tenpestak sesitu gaitu,
Galdu gara guziak,
Faboratzen ezpagaitu,
Iauna, zure graziak.

Sepulturak dakuskigu,
Itsasoan barrena,
Begietan hurbil dugu,
Haratzeko orena.

Ea beraz, gure Iauna,
Huna behar ordua,
Hedazazu gure gana,
Zure esku Saiñdua.

Manazazu kalma dadiñ,
Haizearen furia,
Itsasoa eder dadiñ,
Eta mansa guzia.

Ez ondora bai ondora,
Menera hurbilduak,
Eman zintuen salbora,
Zure dizipuluak.

Elementa zutelarik,
Bizi etsigarria,
Zuk hitz xoillaz manaturik,
Kalmatu zen guzia.

Galdez fabore beraren,
Nigarrez gagozkitzu,
Perill huntarikan arren,
Iauna, salba gaitzatzu.

Erosiak nola garen,
Zure odol Sainduaz,
Orrhoit zaite, Iauna arren,
Ez gure bekhatuaz.

Kausa gure bekhatuak,
Egia da direla,
Tenpestaz atakatuak,
Zeren garen hunela.



Baiñan othoi ikhuskitzu
Ditugun urrikiak,
Barkha, Iauna, dagozkitzu
Gure bihotz guziak.

Doloretan urthatuak,
Geure falta handiez,
Harzen ditugu doluak,
Egiñ tugun guziez.

Orai eta sekulako,
Gure Ienko Iustua,
Zaitugula Maitatuko,
Harzen dugu Botua.

SUB TUUM PRAESIDIUM

Antiphona

Zure gana heldu gara,
Ama Ienkoarena,
Har gaitzatzu gerizera,
Guarda gaitza ketzuna.

Othoitzak heldu zaizkitzu
Gure bihotzetarik,
Bethi begira gaitzatzu,
Perill guzietarik.

—Ienkoren ama arren,
Khristoren promesentzat:
—Eman zaite, digne garen,
Othoitzetan guretzat.

OTHOITZA

Miserikordia guztiz, zein handi eta eziñ erra daitekenaren
Ienkoa, ez xoillki gizon baiña oraiño zaren, gizonaren seme nahi izañ
duzuna: Ienkoa aita Zeruetan zinduenak, lurrean emaztea Amatzat
hartu duzuna, othoitzez gagozkitzu humilki Egiñ diezaguzun fabore
zor zaion Debozionaerekiñ haren orrhoitzapena Zelabra dezagun,
baxotasun berarekin ohora haren Amatasuna, eta erenda haren
Dinitate gorari geure obligazionezko agurrak, zeñiak Espiritu
Saiñduaren Berthutez Konzebitu Baitzaitu, erdi baita zutaz gelditurik
Birjina, eta izan baitzaitu lurrean bere Obedient, gure Iauna, Aita eta
Espiritu Saiñduarekiñ bizi zarena mendez Mende, Amen.

STABAT MATER DOLOROSA

Ama Doloraturikan,
Bazagoen tristea,
Bistan gurutzaturikan,
Zakusala semea.

Amak hala zakusala,
Zer pena etzaraman,
Kutales batek bezala,
Zaurthurikan ariman?

O Ama Doloroso!
Zeñiek erran zezaken,
Zure pena ordukoa,
Zein lastimagarri zen.

Elas pena, pena, triste,
Sesitu ziñtuena!
Atakatu bezañ fite,
Hill kolpea zuena.



Nor zeiteken ama hala
Zakusala penetan,
Etzaitena berehala
Partale doloretan.

Azote kolpez zaurthurik,
Odolez uholdea,
Ikhusi du gorputzetik,
Zariola semea.

Ikhusi du gurutzean,
Herioa sufritzen,
Egarrizko dolorean,
Mundutikan partitzen.

Ea amudioaren,
Ama egiazkoa,
Egidazu dudan arren,
Zue duzun ondikoa.

Tuda nik ere zurekin,
Sentimenezko harrak,
Bihotzeko suspirekin,
Begietan nigarrak.

Zure semearenetan,
Egidazu fabore,
Har nazazu doloretan,
Partaletzat ni ere.

Haren zauriz bihotzean,
Zaurthua nabillala,
Bethiere gurutzean,
Bizi naiten bezala.

Den nik maite dukedana,
Bizi eta hillean,
Iesus nigatik hill dena,
Zu harekiñ batean.

Den ene memorioan,
Gurutzea iarria,
Iesus izena ahoan,
Iesusekin Maria.

Nadintzat partale arren,
Zakiskit faboretan,
Pasione Saiñduaren,
Merezimenduetan.

Zu zaitut, ama maitea,
Gidaritzat Munduan,
Neure fabere uster,
Hilzerako orduan.

Zure semearenganik,
Izanikan grazia,
Dukedanzat beraganik,
Sekulako loria.

OTHOITZA

Iesu Khristo, gure salbatzaille Iauna, othoitzten zaitugu humilki, Birjina Gloriosoa, zure ama, Gertha dakigun bitarteko zure miseriardiaren aitzinean orai, eta heriotzeko orenean, zeñaren arima zure pasione Saiñduaren dolorean kutalesak iragan baitzuen bizi, zarena aita, eta Espiritu Saiñduarekin Mendez Mende.

ANDRE DENA MARIARI EGITEKO OTHOITZA

Zeruetan ene zaren,
Adbokatzat iarria,
Iduk-azu bethi arren,
Enegana begia.



Ikusteko non nabillan,
Ala zure ondotik,
Ala menea nabillan,
Hastanzeko bidetik.

Senti nauzun bazain laster,
Noala hastanzera,
Egizu zuk ere laster,
Ene faboratzera.

Bitartekotzat ugatza,
Emozu semeari,
Eta semeak bemotza,
Bortz zauriak aitari.

Zeruraino arribatu,
Eta ikhus artean,
Aita, Seme, Espiritu,
Zu hekien batean. Amen.

FINA

DOTRINA KRISTIANA

Debotak eskuetara heldu zaitzuen Dotriña Khristiana eza-zuela Xoilki errezi debotonezko fabore bat bezala; baiñan oraiño salbamenduarentzat nezesario dena bezala; Ezen bat bedera obligatua da bere lege Sainduaren iakitera, zeña baita Dotriña Saiñduak irakasten duena: Eta nol gustiarekin, zuetzat bezanbatean baitut siñhestea, hango ponturik prinzipalenak badakizkitzuela, edo ezperen laburki etzaitzuenaz geroz, exortatzen zaituztet: eta othoitzten irakasteaz irakurtzen eztakitenei paradak agintzen darotzuenetan, bidehantaz, hañei egiñen diozuen fabore espirituala, segura zaitezte, zebei halaber gertatuko zaitzula, zebeñ gaiñerako obra onen berretgarritzat.

DOTRINA KHRISTIANA

GAL. Nork kreatu zaitu, eta eman mundura?

IHA. Ienkoak.

GAL. Zertako?

IHA. Haren ezagutzeko, maitatzeko, zerbitzatzeko eta ondoran haren loriaren ardiasteko.

GAL. Nor da Ienkoa?

IHA. Zeruairean, lurraren eta hetan diren Kreatura guzien Kreatzailea, iabea, eta gobernatzailea.

GAL. Noiz Ienkoa egiñ zen Ienko, eta nondik du bere ethorkia?

IHA. Ienkoak eztu hasterik, haren ethorkia ezta nihorenganik, hasterik gabe baita egundainotikakoa, zeñarenganik baitute dependenzia gaiñerako kreatura guziek, eta hark ez nihorenganik.

GAL. Non da Ienkoa?

IHA. Zeruan lurrean, eta lekhu guzietan, bere izatez, bere prezentziaz, eta bere botherez.

GAL. Ifernuan da?

IHA. Bai.

GAL. Han zer hari da?

IHA. Damnatuen punitzen.

GAL. Purgatorioan da?

IHA. Bai.

GAL. Han zer egiten du?



IHA. Han diren arimak gastigatzen, eta purgatzen haren Iustiziari satisfazioea egin artean.

GAL. Parabisuan da?

IHA. Bai.

GAL. Han zer hari da?

IHA. Bere maiteen eta hautatuaren errekonpentsatzen.

GAL. Munduko parte, eta lekhu guzietan da?

IHA. Bai.

GAL. Han zer hari da?

IHA. Bere Kreatura guzien mantenatzen eta konserbatzen.

* * *

GAL. Zenbat Ienko dire?

IHA. Ezta Ienko bat baizen.

GAL. Ienkoa baithan zenbat presuna dire?

IHA. Hirur.

GAL. Zeiñ dire hek?

IHA. Aita, eta semea, Espiritu Saiñdua.

GAL. Aita Ienkoa da?

IHA. Bai.

GAL. Semea Ienkoa da?

IHA. Bai.

GAL. Espiritu Saiñdua Ienkoa da?

IHA. Bai.

GAL. BEraz hirur Ienko dire?

IHA. Ez: ezta Ienko bat baizen hirur presuna izan arren.

GAL. Zergatik hirur presuna hek ez tire Ienko bat baizen?

IHA. Zeren hirur presuna hek, ezpaitute naturaleza bat baizen, Ienkotasun bat, izate bat, eta bothere bat baizen.

GAL. Hirur presuna hetarik zeñ da handiena, eta botheretsuena?

IHA. Hirurak berdindire handi, eta botheretsu.

GAL. Zergatik?

IHA. Hirurek ezpaitute Ienkotasun bat baizen, izate bat, eta bothere bat baizen, eta hirurak orobat hasterik gabe egundaiñotika-koak.

GAL. Zeiñ da hirur presuna hetarik lehena?

IHA. Ezta lehenik hekien artean.

GAL. Beraz aita ezta nihoiz izatu semea gabe, eta Espiritu Saiñdua gabe?

IHA. Ez ezta izatu, zergatik Trinitate Saiñduan ezpaita lehenik, ez azkenik, ez handiagorik, ez ttipiagorik.

GAL. Nola diozu hori horla? Trinitatean lehen presuna aita da, bigarrena semea da, eta hirugarrena Espiritu Saiñdua, beraz Trinitate Saiñduan bada lehena eta azkena?

IHA. Hori da aita ezpaita nihorenganik, bai ordean semea aitaganik, eta Espiritu Saiñdua aitaganik eta semeaganik, ordean egundaiñotikan.

GAL. Zergatik hirur presunen artean ezta bata baiño berzea lehenagorik?

IHA. Zeren hirur presuna hek izatez orobat Eternal, orobat hastegabe, eta orobat fiñgabe baitire.

GAL. Aita Eternala nork egin du?

IHA. Ez nihork.

GAL. Nork kreatu du?

IHA. Ez nihork.

GAL. Nondik da bada?

IHA. Hasterik gabe bere baitharik.

GAL. Semea nork egiñ du?

IHA. Ez nihork.

GAL. Nondik da bada?

IHA. Bere aitaganik egundaiñotikan enjendratua.

GAL. Nola bere aitak enjendratu du, eta enjendratzen du?

IHA. Adimenduaren bidez, bere burua kontenplatzen duela enjendratze du bere semea, bere iduriberetako, naturaleza beretako, haren perfekzioe, eta abantail guzia orobat ditena, ordean egundaiñotikan.

GAL. Espiritu Saiñdua nork egiñ du?

IHA. Ez nihork.

GAL. Nork enjendratu du?

IHA. Ez nihork.

GAL. Nondik da bada?

IHA. Aitarenganik, eta semearenganik dubere ethorkia, aitak, eta semeak elkhar maitatzen dutela produitzen dute Espiritu Saiñdua, ordean egundaiñotikan.

* * *



GAL. Trinitateko hirur presunetarik zein da gizon?
 IHA. Bigarren presuna, zeïña baita semea.
 GAL. Zer erran nahi da, edo nola aditzen da, gizon egin dela?
 IHA. Aditzen da, hartu dituela guk bezala gorputz bat: eta arima bat.
 GAL. Non egiñ da gizon?
 IHA. Andre dena Mariaren sabel sakratuan.
 GAL. Noren Berthutez?
 IHA. Espiritu Saiñduarenaz.
 GAL. Nola daritza?
 IHA. Iesu Khristo.
 GAL. Nor da haren Aita?
 IHA. Aita eternala, eta san Ioseph haren aita ordea.
 GAL. Non sorthu zen Iesu Khristo?
 IHA. Betleengo Establian.
 GAL. Noiz sorthu zen?
 IHA. Eguberri gabea.
 GAL. Nor da Iesu Khristo?
 IHA. Egiatzko Ienkoa eta egiatzko gizona.
 GAL. Zergatik da egiatzko Ienkoa?
 IHA. Aita eternalaren semea baita.
 GAL. Zergatik da egiatzko gizona?
 IHA. Birjiña Saiñduaren semea baita gu bezala gorputz eta arimarekin.
 GAL. Iesu Khristo, zenbat natura ditu?
 IHA. Bia.
 GAL. Zeiñ dire hek?
 IHA. Dibinoa eta humanoa.
 GAL. Zenbat presuna ditu?
 IHA. Bat, Zeïña Dibinoa baita.
 * * *
 GAL. Iesu Khristo hil zen?
 IHA. Bai hil zen gizon bezala.
 GAL. Nola hil zen?
 IHA. Gurutzefikaturik.
 GAL. Zergatik hil zen?

IHA. Gure salbatzeagatik.
 GAL. Hil-eta haren arima nora ioan zen?
 IHA. Linboetara.
 GAL. Zertara?
 IHA. Patriarken, profeten, eta haren begira zaudezen arimak handik libratzera.
 GAL. Iesu Khristo bistu zen?
 IHA. Bai.
 GAL. Zer da bista?
 IHA. Arima gorputzarekin iuntatzea.
 GAL. Noiz bistu zen?
 IHA. Bazko goizean.
 GAL. Bistu eta zenbat egotu zen munduan Zerura igan gabe?
 IHA. Berrogoi egun.
 GAL. Gero nora ioan zen?
 IHA. Zeruetara.
 GAL. Noiz igan zen Zeruetara?
 IHA. Iondone salbatorez.
 GAL. Non da orai Iesu Khristo?
 IHA. Ienko bezala lekhu guzietan, eta gizon bezala aitaren eskuiñeko aldean eta aldareko Sakramendu Saiñduan.
 GAL. Aitak badu eskuiñik?
 IHA. Ez.
 GAL. Zergatik ez?
 IHA. Guziaz Espiritu baita, eta ezpaitu gorputzik.
 GAL. Zergatik bada erraten da aitaren eskuiñeko aldean dela?
 IHA. Horek erran nahi du Ienkotasunaz landan hark duela loriarik handiena.
 GAL. Iesu Khristok zeruetara igan denean, zer egorri daro-ku?
 IHA. Espiritu Saiñdua.
 GAL. Zeiñ eginez?
 IHA. Pentekostez.
 GAL. Nori egorri dio Espiritu Saiñdua?
 IHA. Apostoluei Eliza Saiñduari.

* * *



GAL. Iesu Khristo aldareko Sakramendu Saiñduan hilla, ala bizia da?

IHA. Bizia.

GAL. Nola da hori?

IHA. Aldareko Sakramendu Saiñduak berekien baitadutza egiezki, eta errealki Iesu Khristoren gorputza segidan arima, odola eta Ienkotasuna, ogiaren, eta arnoaren idurien azpian.

GAL. Zer dire ogiaren, eta arnoaren iduri hek?

IHA. Gure sensuei agertzen, eta presentatzen zaiztenak, nola baitire ogiaren, eta arnoaren figura, gustua, kolorea, eta kantitatea.

GAL. Sakramendu Saiñdua errezibitzean zergatik errezibitzen dugu?

IHA. Iesu Khristo ohora, eta laudatzeagatik, harne grazien berretasuna bereziki errezibitzeagatik, gure arimen salbatzeagatik, Iesu Khristorekin iuntatzeagatik, haragiaren, Deabruaren, eta Munduaren zagitak Bentzuteagatik eta Iesu Khristoren Pasione, eta heriotze Saiñduaz orrhoitzeagatik.

* * *

GAL. Zer iakin behar du aitzinetik Iesu Kristoren gorputz preziatua errezibitu nahi duenak errezibitzera obligatua den orduean?

IHA. Iakin behar ditu, lehenbizikorik Kredoan diren artikulu fedezkoak.

GAL. Zenbat dire artikulu fedezkoak?

IHA. Hamabi.

GAL. Zeiñ dire hek?

IHA. Lehenbizikoa da siñhesten dut Ienko aita bothere guzia duena baithan, Zeruaren, eta lurraren Kreatazaillean.

Bigarrena, eta Iesu Kristo haren seme bakhointz gure Iauna baithan.

Hirurgarrena, zeñ konzebitu baitzen Espiritu Saiñduaren berthutez, sortu zen Maria Birjinaganik.

Laugarrena, pairatu zuen Ponzio Pilatusen manuaren azpian, kruzifikatu zuten, hil zen, eta ehorzi zuten.

Bortzgarrena, iausti zen ifernuetara, eta hirugarren egunean iaiki zen bizirik hillen artetik.

Seigarrena igan zen zeruetara, iarririk dago Ienko aita bothere guzia duenaren eskuñeko aldean.

Zazpigarrena handik ethorriko da da bizien eta hillen iuia-tzera.

Zortzigarrena siñhesten dut Espiritu Saindua baithan. Bederatzigarrena Eliza katolika Saiñdua, Saiñduen partaletasuna.

Hamargarrena bekatuen barkhamendua.

Hamekagarrena haragiaren bista.

Hamabigarrena betiere iraunen duen bizitzea.

Hala biz.

* * *

Bigarreanean, iakin behar du Pater Noster.

GAL. Zer kontenitzen da Pater Nosterrean?

IHA. Ienkoari galdegin behar diotzogun gauzak.

GAL. Nola dire?

IHA. Gure aita zeruetan zarena, erabil bedi saiñduki zure izena: ethor bedi zure Erresuma: Egiñ bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean ere; Iguzu egun gure eguneko ogia: Eta barkha dietzagutzu gure zorrak, guk guregana zordun direnei barkhatzen daroztegun bezala: Eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erorzeraz: Aitzitik begira gaitzazu gaitzetik. Hala biz!

Ave Maria

Agur Maria, graziaz bethea, Iauna da zurekin: benedikatua zara emasteen artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua Iesus. Maria Saiñdua Ienkoaren ama, egizu othoitz gu bekhatoreenzat orai, eta gure heriotzeako orenean. Halabiz.

* * *

Hirurgarreanean, iakin behar ditu, manamendu saiñduak.

GAL. Zenbat dire manamendu saiñduak?

IHA. Ienkoarenak hamar: Eliza saiñduarenak zazpi.

GAL. Zeiñ dire Ienkoarenak?

IHA. Lehenbizikoa da, Ienko bat dela siñhetsirik hura bera gauza guzien gaiñetik maita, ohora eta, zerbitza dezagula.



Bigarrena arnegurik, ziñik, edo iuramenturik banoki eta premia gabe eztagigula.

Hirurgarrena, Igandeak eta bestak begira detzagula.

Laugarrena geure burasoak ohora detzagula.

Bortzgarrena, nihor hil estezagula.

Seigarrena, haragizko obrarik ezkonzaz kanpoan eztagigula.

Zazpigarrena, deus ebats eztezagula.

Zorzigarrena, lekhukotasun falsorik erran eztezagula.

Bederatzigarrena, berzeren senharrik, edo emasterik desira eztezagula.

Hamargarrena, laugaren ontasunari gutizia ezkakizkola.

* * *

GAL. Zeiñ dire Eliza Saiñduaren manamenduak?

Lehenbizikoa da, igandeetan eta bestetan Meza saildua enzun dezagula.

Bigarrena, urthean behiñ bederen konfesatuko garela.

Hirurgarrena, bazkos bedereñ gorputz saildua errezi bi dezagula.

Laugarrena, manamenduzko bestak begira detzagula.

Bortzgarrena, Garta denborak, Bijiliak, eta garizuma osoki barurtuko tugula.

Seigarrena orziraletan, eta larunbatetan haragirik ianen eztugula.

Zazpigarrena, zilhegi eztenean ezteik egiñen eztugula, eta hamarrenak eta primiziak zuzenki pagatuko tugula.

* * *

Laugarrenean, iakin behartu sakramendu sailduak.

GAL. Zenbat dire sakramendu sailduak?

IHA. Zazpi.

GAL. Zeiñ dire hek?

IHA. Lehen da, bathaioa.

Bigarrena, konfirmazionea.

Hirurgarrena, gorputz saildua.

Laugarrena, penitentzia.

Bortzgarrena, anunzioa.

Seigarrena, ordena.

Zazpigarrena, ezkonza.

* * *

GAL. Nor dire obligatuak aldareko sakramendu sailduaren errezi bitzera?

IHA. Diskreziõnearen adiña ardiatsi dutenak.

GAL. Noiz ardiasten da diskreziõnearen adiña?

IHA. Hamabi urteren inguruan.

* * *

GAL. Aldareko sakramendua errezi bitzean zenbat gauza errezi bitzen dire?

IHA. Bortz.

GAL. Zeiñ dire hek?

IHA. Lehena Iesu Kristoren gorputz saildua.

Bigarrena, segidan haren odol sakratua.

Hirurgarrena, haren arima.

Laugarrena, haren Ienkotasuna.

Bortzgarrena, ogiaren ak-

[...]

IHA. Bai, eta handia da.

GAL. Zer diferentzia da?

IHA. Gurutzefika ezpaita Iesu Kristoren iduria baizen, representatzen darokula haren pasione eta heriotze saildua, bai-nan hostia konsakratuan Iesu Kristo errealki da.

* * *

GAL. Errezi bitzen dute onek, eta gaistoek aldareko sakramendu saildua?

IHA. Bai.

GAL. Onek eta gaistoek errezi bitzearen artean bada diferentziarik?

IHA. Bai.

GAL. Zer diferentzia da?



IHA. Onek errezipitzen dute bere salbamendutan eta gais-toek bere damnazionetan.

GAL. Zenbat kondizione dire nezesario dineki errezipitzeko aldareko sakramendu saiñdua?

IHA. Bortz.

GAL. Zeiñ dire hek?

IHA. Lehena fedea.

Bigarrena iakitea zer errezipitzen duen.

Hirurgarrena debozionerekin errezipitzea.

Laugarrena etsaiekin adiskidetzea.

Bortzgarrena barurik errezipitzea.

* * *

KONFESIONEAZ

GAL. Zenbat kondizione dire nezesario ungi konfesatzeko?

IHA. Bortz.

GAL. Zeiñ dire hek?

IHA. Lehena, ungi konzienzia examinatzea.

Bigarrena, Ienkoaren ofensatzeaz damu handi bat izatea.

Hirurgarrena, deliberazione fermu baten hartzea ez geiago Ienkoaren ofensatzeko haren graziarekin batean.

Laugarrena, bekhatu guziak aphezari urriki handi batekin konfesatzea.

Bortzgarrena borondate on bat izatea Ienkoari, eta proxi-moari satisfatzeko.

* * *

GAL. Zenbat dolore suerte dire bekhatoreak bere bekhatuez ahaltuzkenak?

IHA. Biak, zeñak baitire kontrizioea eta atrizioea.

GAL. Zer da kontrizioea?

IHA. Kontrizioea da dolore, eta damu handi bat Ienkoaren ofensatzeaz, zeren den haiñ ona, eta gauza guzien gaiñean maitatze-koa, eta harzea borondate fermu bat ez haren gehiago ofensatzeko haren graziarekin batean.

GAL. Zer da atrizioea?

IHA. Atrizioea da bekhatuez dolore, eta damu bat izatea ifernuko penen beldurrez edo bertze zenbait bere interesaz doakon suietez.

GAL. Konfesioea ungi egiteko, bekhatuen barkhamendua-ren ardiasteko osoki nezesario da, edo kontrizioea, edo atrizioea?

IHA. Bai, nezesario da, bata, edo berzea, ezen berzela kon-fesioeak ez luke deus balio.

* * *

BEKHATUAZ

GAL. Zer da bekhatua?

IHA. Ienkoaren lege saiñduaren kontra egiten, erraten, edo pensatzen dena.

GAL. Zenbat bekhatu suerte dire?

IHA. Bia.

GAL. Zeiñ dire hek?

IHA. Orijinala, eta aktuala.

GAL. Zer da bekhatu orijinala?

IHA. Gure aita Adan eta ama Ebaganik ethorkiz, eta prime-zaz konzebitu garen puntu berean gurekien dakarkegun bekhatua.

GAL. Zerk garbitzen gaitu bekhatu orijinaletik?

IHA. Bathaio saiñduak.

GAL. Zer da bekhatu aktuala?

IHA. Bekhatu borondatezkoa, edo borondatez egiten dena.

GAL. Zenbat bekhatu aktual dire?

IHA. Bia.

GAL. Zeiñ dire?

IHA. Mortala, eta beniala.

GAL. Zer da bekhatu mortala?

IHA. Bekhatu mortala da Ienkoaren etsai, eta deabruarekien bat egiten gaituen bekhatua, zeruko bidetik aldaraturik ifernuko bidean ematen gaituena, eta arimari heriotze espirituala ematen dioe-na.

GAL. Zenbat fazoiñez egiten da bekhatu mortala?

IHA. Lau fazoiñez, obraz, omisioneaz, hitzaz, eta pentsa-menduaz.

GAL. Zerk libratzen gaitu bekhatu mortaletik?



IHA. Penitenziazko edo konfesioezko sakramendu saiñ-
duak, edo konfesatzeko lekhurik eztugunean akta kontrizionezkoak,
intenzionerekin gukure bekhatuak konfesatzeko lehenbiziko paradan.

GAL. Zer da bekhatu beniala?

IHA. Karitatea hozten, eta bekhatu mortalera disposatzen
duen bekhatua.